

**IRUÑE ETA TUTERA, BILBO, DONOSTIA
ETA GASTEIZKO ELIZBARRUTIAK**

GIZALEGEZKO BIZITZAREN ZERBITZURA

**IRUÑE ETA TUTERA, BILBO, DONOSTIA
ETA GASTEIZKO GOTZAINEN IDAZKIA**

1992, GARIZUMA-PAZKO PIZTUERA

AURKIBIDEA

SARRERA (1. z.)

Gure asmoa (2. z.)
Pastoral Idazkiaren egitura (3. z.)

I.- BIZIARI BURUZKO GAURKO KULTURAREN ARGILUNAK (4. z.)

Giza bizia, begirunearen eta erasoaren artean (5. z.)
Bizi maila ona: argi-ilunak dituen helburua (6. z.)
Osasuna goratu eta bizitza kaltegarria suztatu (7. z.)
Ardurarik ezaren eta osasuna sasi-jainko bihurtzearen artean (8. z.)
Eraso indar suntsitzailearen hazkuntza (9. z.)
Atsegina bilatzea eta besteren oinazearen aurrean axolarik eza (10. z.)
Gaixotasuna sortzen duen gizarte batean bizitzeak duen arriskua (11. z.)

II.- GALDERAK ETA KEZKA (12. z.)

Biziaren balioa (13. z.)
Zer-nolako bizia? (14. z.)
Zer-nolako osasuna? (15. z.)
Gizakiari dagokion bizitza, ala ongi-izate hutsa? (16. z.)
Zer egin sufrimentuarekin? (17. z.)
Osasuna bakarrik edo salbamena ere bai? (18. z.)

III.- BIZIA, JAINKOAREN DOHAINA ETA GIZA EGINKIZUNA (19. z.)

“Bizia maite duen” Jainkoa

- Bizia, Jainkoaren dohaina (20. z.)
- Bizia bortxa-ezina (21. z.)

- Biziaren bidea (22. z.)
- Behartsuen bizia (23. z.)
- Jesus, egiazko osasun emaile (24. z.)
- Jainkoaren salbamena osasun gisa (25. z.)
- Nor bakoitzaren eta gizartearen osasuna (26. z.)
- Osasun osoa (27. z.)
- Osasun askatzailea (28. z.)
- Osasunarenganako ardura, baina ez sasi-jainko bihurtua (29. z.)
- Salbamenera zabalik dagoen bizia (30. z.)

Gurutziltzatua: oinaze-askatzailea (31. z.)

- Bizia maitatzea
- Oinazearen aurkako borroka (32. z.)
- Gurutzean josia izatea onartzen du (33. z.)
- Gurutzearen alderdi ona (34. z.)

Kristoren piztuera, bizi berriaren sorburu (35. z.)

- Bizi berri batera berpiztea
- Espiritua, Jaun eta bizi-emailea (35. z.)
- Biziaren aldeko borroka (37. z.)
- Betiko bizirako hiltzea (38. z.)

IV.- GIZAKIARI DAGOKION BIZIAREN KULTURA LORTZEKO (39 z.)

Biziaren alde egon

- Bizia gure eskuko emaitza gisa hartzearen aurrean (40. z.)
- Dogmatismo itsuen aurka (41. z.)
- Dena egitasmo barruan sartu nahiaren aurka (42. z.)

Maila oneko biziaren etika (43 z.)

- Biziaren giza edukia
- Maila oneko bizia, norentzat? (44. z.)

Gizakoa izango den osasuna (45. z.)

- Norberaren erantzukizuna
- Osasuna, moral eginkizun (46. z.)
- Pertsonari dagokionez bizitzeko indarra (47. z.)

Gorputza osasuntsu zaintzea (48. z.)

- Iritzi oneko ikuspegia gorputzari buruz
- Gorputzaren gain nagusi izatea (49. z.)

Jarrera osasuntsua oinazearen aurrean (50. z.)

- Alferrikako oinazeak baztertzea
- Oinazearen aurka borrokatzeagatik jasan beharra (51. z.)
- Halabeharrez datorkigun sufrimena onartzea (52. z.)

Gaixotasunaren giza esperientzia (53. z.)

- Ziurtasunaren etena
- Galderak egiteko unea (54. z.)
- Muina zein den agertu (55. z.)

Bizitzaren burutzea (56. z.)

- Ezina onartu beharra
- Zahartzen jakin (57. z.)

Sinesmenaren indar osasungarria (58. z.)

- Zentzuz bizi
- Bizitza egiatia (59. z.)
- Maitasunez onartutako bizitza (60. z.)

V.- BIZIAREN ZERBITZURA (61. z.)

Bizitzeko arreta

- Biziagatik eskerrak eman
- Gizakiari dagokion eran bizi
- Bizitzeko hezi (62. z.)
- Bizitzen irakatsi Kristau elkartean (63. z.)

Bizitza osasuntsuagoa bizitzeko konpromezua (64. z.)

- Gizartearen ahalegina
- Kristau elkartea, osasun iturri (65. z.)

Gaixo dagoenaz arreta izan (66. z.)

- Sendakuntza alorreko profesionalak
- Gaixoa kristau elkartean (67. z.)
- Iharduera ebanjelizatzailea ospitalean (68. z.)
- Gaixoen sakramentuak (69. z.)

Hondatua eta etsia dagoenari lagun egin (70-71. z.)

SARRERA

1. Garizuman eta Pazkoaldian, kristauok Jaunaren heriotza eta piztueraren misterioa ospatzen dugunean, urtero zuei Idazki Pastoralak zuzendu dizkizuegu, funtsean asmo bera edukiz beti: zuei laguntzea, bizi-indarra eta salbamenturria aurki ditzazuen gaur egungo gizon-emakumeentzat, Jesukristogan agertzen den Jainkoagan eta kristau fedean.

Jainkoaz askotan hitz egin dizuegu, «gizakiaren zaintzailerik onena eta lagunik handiena»¹ den aldetik; egiazko Jainkoaren irudia berreskuratu eta garbitu nahi genuen, gaurko gizartean hain izen eta itxura txarra duen irudia. Gizakiari buruz ere hitz egin dizuegu, uste dugulako, Jesukristogan bakarrik eskaintzen zaigula giza misterioaren giltza eta biderik onena, gaurko gizon eta emakumeek beren egiazko aurpegia aurki dezaten.

Aurten, hain zuzen, «bizia maite duen» Jainkoari buruz hitz egin nahi dizuegu; eta gizakiaren egiazko sendatzaile den Jesukristori buruz. Hau idaztekoan, uste osoan gaude, Jainkoagana bihurtzeak hazi arazi egiten dituela gizakiagan osasuna eta bizia. Jainkoagana bihurtzea eta Jesukristoren Berri Onari harrera ona egitea, egiazko osasunera daraman bidea hartzea da; gure izaera osabidetzen hastea; eta pertsona eta gizartea beren hazkuntza eta garapenera daramatzen bideari ekitea. Gaur egun ere, lehenengo kristauak bezala senti dezakegu «bizira daramala bihotz-berritzeak» (Ap Eg 11,18).

Garizuma eta Pazkoaldi honetan dei egiten dizuegu Jainkoagana bihur zaitetzen, Jainkoak «ez bait du gaiztoaren heriotzarik nahi, baizik eta bere bidetik itzuli eta bizi dadila» (Ez 18,23). Denoi zaigu beharrezko, osasungarri ez diren jokabideetatik eta bizia desegiten edota hondatzen duten mekanismo desegileetatik, geure buruak askatzea; denok gaude geure erruak aitortzera behartuak, baita gizakiarentzat duinago den bizitza baten alde jokatzeko, geure gain hartu ez genituen erantzukizunak aitortzera ere. Jainkoak denoi egiten digu bere deia: «Bila nazazue, eta biziko zarete» (Am 5,4).

Gure asmoa

2. Gure egunotako gizakiaren bizitza, bere lorpen eta hutsegiteekin, bere aurrerapen eta atzerapenekin, bere galdera eta kontraesanekin, desafio eta galdegite bat da guretzat, eta guk ez diogu entzungor egin nahi. Gaurko gizakiak daraman bizitza horri buruz, eta bizitza hori ulertzeko eta bizitzeko erari buruz, nahi dizuegu hitz egin. Giza bizitzak badu bere hasiera eta bere bukaera. Eta gure idazki honek gogoan hartzen baditu ere gizakiaren jaiotza eta azkena ere, oraingo honetan ez da gure asmoa biziaren sorkuntzak edota gizakiaren herio-

¹ *Jesukristoren Jainkoagan sinestea gaurregun*, Iruñe eta Tuteran, Bilbo, Donostia eta Gasteiz, 1986, 4. zenb.

tzak berekin dituen arazoak aztertzea. Bestalde, norbaitek, agian, biziaren gaineko eskubidearen aldeko gogoeta bat espero dezake berriro ere, urte hauetan zehar guk, hainbat aldiz, terroristen bortxakeriaren aurrean eta biziaren aurkako eta zuzenkontrakoa den edozein jokabideren aurrean, babestu izan dugun eskubidearen aldeko gogoeta. Baina ez da hori ere oraingo Pastoral Idazki honen zuzeneko asmoa. Guk aurrean ditugun galderak eta kristau ikuspegitik erantzuna eman nahi diegunak hauek dira:

Ikusten dugularik, biziaren aldeko adierazpen ospetsuekin batera, «biziaren aurkako» pentsamoldea adierazten duten jokabide, irizpide, portaera eta gizarte baldintzak zabaltzen direla, ezarian eta ia ohartzeko; nola zaindu eta hobeto babestu gizakiaren bizia honelako gizartean? Zein da, biziaren eta osasunaren kultura indarberritzeko, hau da, gizakiaren alderdi guztiei arreta handiagoa jarri eta gizonaren erabateko salbamenera zabalik egongo den kultura indarberritzeko, kristau fedea gaur egun eman dezakeen laguntza?

Nola bideratu eta era osasuntsuan bizi, egunotako gizakiak ari duen osasun eta bizitza zorionsuaren bilaketa hori, alderdi askotatik hain ongarri eta aberasgarria gertatzen den, baina beste batzuetatik hain zehazgabea eta okerbidetatua den bilaketa? Zer egin dezakete kristau elkarteek, bizikizun humanizatzaile bezala ulertu eta bizitzen den fedea oinarri harturik, bizikera osasungarria bat suzatzeko, bai osasunaz gozatzekoan, bai gaitza eta ezbeharrak sufritzekoan? Hitz batean, nola hots egin eta eskaini gaurko gizakiari «biziaren Ebanjelioa» eta Jesukristoren salbamena, indar sendatzaile eta bizierazle diren aldetik, eta orain bertan, gure bizitzaren muga eta ahuleziaren barruan, betiko biziaren agintzari bezala senti daitezkeen aldetik?

Pastoral Idazkiaren egitura

3. Idazkiaren *lehenengo zatia* egungo gizakiaren bizimodura hurbiltze bat izan nahi du, kultura modernoaren zenbait kontraesan bereizteko, kontuan izanik, egunotako kultura gai dela bizia eta honen maila ona goraiatzeko, baita gehiegi ere; baina gai dela, aldi berean, bizia eta osasuna arinkeriaz suntsitu eta hondatzeko.

Bigarren zatian, geure kristau kontzientzian sartzen diren zenbait kezka eta galdera aipatzen ditugu era laburrean, eta, beharbada, beste gizon eta emakume askorengan ere sortzen direnak, haiek, hain zuzen, nahiz eta gure federik ez izan, benetan kezkaturik daudenez gizakiak etorkizun hobea eta gizakoiagoa izan dezan.

Hirugarren zatiaren helburua, zuei era apal eta garbian gure fedea adieraztea da: «bizia maite duen» Jainkoagan sinesten dugula, alegia, eta «bidea, egia, bizia» den Jesukristogan; fede hau da gure Berri Ona, eta honetan aurkitzen dugu kristauok argirik bikainena, eraginik sendoena, eta biderik egokiena, bakoitzaren eta gizartearen bizitza era gizakoiaren eraikitzeke.

Gure sinesmenaren ikuspegitik, *laugarren zatian* gogoeta bat aurkezten dizuegu, eta honekin laguntza bat eskaini nahi genuke, gizakiarentzat duinagoa izango den biziaren kultura zuen artean indartu dadin.

Azkenik, *bosgarren zatian*, zenbait zeregin, jokamolde eta portaera aipatzen ditugu; beroriekin giza bizia erantzukizun handiagoz zaindu eta babestera, eta gure herrian bizimodu osasuntsuagoa garatzera adoretu nahi ditugu fededunen elkarreak, kristauak eta gure hitza entzun nahi dutenak.

I.- BIZIARI BURUZKO GAURKO KULTURAREN ARGI-ILUNAK

4. Gizarte eta kultur aldaketa sakonek, urte gutxiren barruan, eraldatu egin dituzte gizakiarentzat hain erabakiorrak diren gertakariak, hala nola jaiotza eta heriotza ulertu eta bizitzeko molde jakinak. Medikuntza zientziaren aurrerape-nak eta sendakuntza teknikek abantaila harrigarriak lortu dituzte oinazearen tratamenduan, gaitzak ezabatze eta bizitza luzatze alorretan. Eta, denbora gu-txian, aldatu egin dituzte gizarte jokabideak gorputza zaintzeari buruz, gaixoa-l-diaren edota zahartzaroaren esperientziari buruz.

Hala ere, ez da erraza gaurko gizon-emakumeek bizitzari buruz dituzten jokabideak jakiten eta ulertzen. Alde batetik, badirudi begirune eta estimu han-diagoz hartzen direla giza bizitza, pertsona babestea eta giza maila duinagoa bilatzea. Baina, aldi berean, gero eta ugariagoak dira biziaren eta osasunaren kontrako erasoak: zabaltzen ari dira jokabide abortozaleak, harrigarriro jaitsi da jaiotze-kopurua, ugaritzen ari dira nork bere burua desegiteko jokamoldeak, eta osasungarria ez den bizitza eramaten da.

Lehen ahalegin bat egin behar dugu, gure garaiko kulturaren zenbait kon-traesan nagusi galbahetzen, gure egunotako gizakiaren bizimoduak eginiko gal-derei erantzuten, bizitza modernoak dituen gauza on eta egiazkoak balioztatzen, eta gaur egun ere amenazu berriz gizakia mehatxatzen duen «biziaren kontrako kultura» salatzen.

Giza bizia, begirunearen eta erasoaren artean

5. Gizaki modernoak, ez bairik gabe, kontzientzia biziagoa lortu du pertsona-ren duintasunari buruz, eta uki-ezinak diren giza eskubideei buruz. Gaurko gi-zon-emakumeek gogor erantzuten diote herio zigorrari, torturari, tratu txarrei eta pertsona itsusitzen duen edozein atentaturi. Legedi modernoek eta gizarte erabakiek era askotara jaso ohi dute, pertsona errespetatzeko eta giza bizitza babesteko borondatea.

Baina gauzak oker ikustea izango litzateke, gizartean aldarrikatu, eta Esta-tuaren oinarritzko legean² onesten denaren kontra, oraindik ere egiten diren zu-zengabekeriak ez ikustea. Giza bizia galdu egiten da jaio aurretik, batzutan le-geak gaitzesten dituen abortu ekintzen bidez, eta bestetan legeak babes ematen dien mediku ihardueren bidez, nahiz eta hori pertsona orori aitortu behar zaion bizi eskubidearen kontra egon garbi-garbi. Biziaren eskubide hau zapaldua ger-tatzen da, bestalde, gutxi-asko azkenetan dagoen zenbaiten egoeratan, oker ulertutako gaixoarenganako «errukiaren» izenean, edota «heriotza duinaren» eta eutanasiaren izenean. Guk geuk, urte hauetan zehar, behin eta berriz gaitze-tsi ditugu hainbat atentatu, hauetan giza bizitza bidegabekeriaz desegina, bahi-tua, torturatua eta tratu txarrez eraso izan delako, arrazoi politiko eta ideolo-giko desberdinen zerbitzuan, edota «kosta-ahala-kosta» hartzen den eginkorta-sun estratejiaren osagarri bait litzan. Gure lur honetan hain maiz gertatzen di-

² Ikus *Espainiako Konstituzioa*, 15. art.

ren atentatu hauekin batera, ezin ditugu, bestalde, ahaztu tratu txarra hartzen duten umeak, erasoak jasaniko emazteak, zaindu gabe dauden zaharrak, bortxaturiko emakumeak, eta beti ezagutzen ez diren beste hainbat erasoketa.

Atentatu hauetako asko aztertzen baditugu, azkar jabetuko gara, teori mailan esaten eta aldezkutzen dena ukatuz, bizia eta pertsonen duintasuna bi aldeetatik dagoela mehatxatua. Helburu politiko eta ideologikoez jomuga absolutuaren maila hartzen dutenean, edota eginkortasunaren printzipioa jokabidearen arau gorena egiten denean, bai pertsonen bizitza eta bai hauen izaera uki-ezina, dogma politikoen mende, edota eginkortasun estrategiaren mende geratzen dira. Idoloek beti dituzte eskatzen eskain-opariak.

Bestalde, biziaren aurka askatasun faltsu bat zutitzeko arriskua da, kultura modernoaren dramarik latzenetako bat. Askatasuna jokabide subjektiboekin nahasten delako, norberaren interesa, probetxua edo atsegina baizik bilatzen ez denean («aske naiz, eta beraz, gogoak ematen didana egingo dut»), orduan baikoitzak alde batera uzten ditu arau etiko guztiak eta, ondorioz, berarekin harremanetan jartzen diren pertsonen eskubideak eta osotasuna ere, nolerebait mehatxaturik geratzen dira. Berekoikeriak, maitasunik gabe uzten ditu giza harremanak, eta, aldi berean, biziarekiko errespetua eta elkarzaintzea ondoen ziurtatzen dituen barne indarrak gabe.

Bizi maila ona: argi-ilunak dituen helburua

6. Denbora luzean, bizitzeko behar diren oinarrizko eta gutxieneko baldintzak ziurtatzea izan zen jendearen kezkarik nagusiena. Beste ametsik ez zitekeen egin, askoz gehiagorako eskuarterik ez zegoen garaietan. Horrelako planteamendua motzegia izango litzateke gaur, eta garaturiko gizarte bati ez dagokiona. Urte batzuetatik hona, ordea, gizartearen eta gizabanakoen helburu bihurtu da maila oneko bizimodua.

Bizi-kalitateaz horrela arduratzeak ondorio nahiko desberdinetara eramanezake: ardura hori gizagintzarako borondateak sortua izan bait daiteke, gizaki guztientzako duina den bizitza zabaldu eta garatzeko baldintzarik egokienak lortu asmoz sortua; edota, alderantziz, eskakizun absolutu bihurtu daiteke, probetxu hutsari eta hedonismoari begiratzen diona; eta beronen arabera neurtzen dira, balioztatzen eta bizitzatik ezabatzen, maila jakin batera iristen ez direnak.

Maila oneko bizimoduaren edukia ekonomi adierazpenetara edota abantaila materialetara bakarrik mugatzen ez denean, baizik eta bere ahalegina pertsonak familian, gizartean, kultur eta erlijio-arloan dituen beharrak hornitzera ere zabaltzen denean, orduan bizi kalitatea giza hobekuntzaren eta egiazko aurrerapen sozialaren eragile indartsu bilakatzen da. Are gehiago maila oneko bizimodu hori aparteko talde aukeratu bati bakarrik ez, baizik eta guztiei eskaintzen zaienean eta, bereziki, behartsuenei. Esate baterako, bizi-kalitatearen printzipioa medikuntza zientziak behar bezala erabili duenean, suztatu egin du, berikuspegi osoan hartutako osasunarenganako, eta pertsonaren alderdi guztiei adi dagoen osasunarenganako sentiberatasuna; eta, gainera, printzipio horrek eraginik, zaharrak, gorputzez eta adimenez gutxituak, edota gaixo kronikoak arduratsuago zaintzera eramanez dituen osasun ikerketa eta teknika.

Oso bestelakoak dira ondorioak, maila oneko bizimodua arau absolutu bihurtzen denean; izan ere, beronen arabera erabakitzen da, zeintzuk diren maila aski ona duten bizitzak, abegi onez hartuak eta zainduak izan daitezen; eta zeintzuk diren gutxieneko maila batera iristen ez direnak, eta, beraz, zaintzea eta babestuak izatea merezi ez dutenak. Klase bereizkuntza bat sortzen da horrela gaixoen artean; badira gaixoak laguntza guztiekin zaintzen direnak, nahiz eta asko kostatzen; eta badira bizi maila murriztua dutenak (zenbait ezindu, familiarik gabeko zahar, gaixo kroniko edota patologia itsusiko), eta hauei zabarko eman dakieke, edota baita ukatu ere, eginkorragoa den terapia. Gehiago oraindik. Maila oneko bizimodua giza bizitzaren beraren gainetik jartzen denean, orduan gizaki izateak ez du eragin moralik aski bizi babestua izan dadin. Badira garrantzirik gabeko bizitzak, ezertarako ez direnak, alferrik daudenak, eta amenazu bezala ere hartzen direnak, mehatxatu egiten bait dute bikotearen ongi izatea, eta familiako bizi maila edota gizartearen iharduera galarazten; eta, horregatik, suntsitu egiten dira.

Osasuna goratu eta bizitza kaltegarria suztatu

7. Gaur egun sekulan ez bezala gorai patzen da osasun fisikoaren, psikologikoaren eta adimenezkoaren balioa. Gaurko gizakia ikerketan eta lanean ari da baliabide guztiak erabiliz, gaixotasun eta minusbaliak aurre-ikusteko eta onik bideratzeko. Baina, aldi berean, gu eraikitzen ari garen gizartean ez da erraza izango era osasungarrian bizitzen. Izan ere, gutxitan egon izan da bizi hain mehatxatua, desoreka ekologikoagatik, eta, kutsadura bideetako ezbeharrak, estresa, edota drogamenpetasunagatik.

Oro har esan daiteke, gaurko gizartean suztatzen den bizikera ez dela osasunaren mesederako. Adituek diotenez, gaur egun gaixotasun gehien sortzen duen eragina, norberak libreki aukeratu eta eramaten duen bizikera omen da; eta adierazten dute, gainera, heriotza dakarten gaixotasun nagusien artean, gaurko gizakiak beretzat aukeraturiko bizitzatik sorten direnak aipatu behar direla (bihotzeko gaixotasunak, minbizia, buruko angiopatiak, gibebeko zirrosia..).

Ez da zaila, gaurko gizakiaren osasunari ondoeza eta kalte ematen dioten zenbait eragin aipatzea: behar adinako atsedenaldirik ez hartzea, bizitzako abiada zorabiozkoa, etengabeko joan-etorriak, gehiegi jatea, gutxi ibiltzea, naturarekiko harremanik eza, zarata, eta, batez ere, alkoholismoa eta era askotako drogak. Ez dugu ahaztu nahi, bestalde, era zoro samarrean eta hordenik gabe eramandako bizikera, eta errepideetan ardurarik gabe eta era arriskutsuan egiten diren ibilerak, denontzat ezagunak diren ondorio negargarriekin. Bereziki mingarria da, hainbat gazte gure artean drogaren, alkoholaren eta denbora baino lehenagoko sexu-ekintza kaltegarriaren sareetan harrapatu ikustea; izan ere, horrelako jokamoldeek hondatu egiten dute, garaia baino lehenago, gazteen bizitza beren osasuna suntsituz eta beren etorkizunari atea itxiz. HIES deituriko gaitza, ez al da gertatu bizikera kaltegarri eta desegilearen adierazgarri bizi?

Aipatu behar dugu, gainera, osasun fisikoa arretarik handienaz zaintzen denean ere, askotan okerreko bizikera goratzen dela: norabiderik gabea, balioz

urria, kontsumoari emana, lehiaketaria, behar adinbat harremanik gabea, etxea sakabanatzen duena, bikotea hondatzen, bizi-projektu bat mamitzea galarazten, bakardadea sortzen eta beste hainbat frustrazio eragiten duen bizikera; eta guzti horrek galarazi egiten die pertsonei hazten eta era osasuntsuan garatzen.

Ardurarik ezaren eta osasuna sasi-jainko bihurtzearen artean

8. Medikuntzaren teknika alorreko garapena harrigarria izanda benetan, eta gaurko gizakia ohiturik dago osasuna, praxian, sendagile profesioaletatik eta hauen teknikatik itxaroten. Badirudi berauetara jo beharra dagoela osasuna eman diezaguten, eta berorien eginkizuna dela osasuna guri berreskuratzea, guk galdutakoan. Era honetan, irudipen kaltegarri honetara iritsi daiteke: uste izatera, alegia, osasuna egin eta eros daitekeen zerbait dela, gizarte modernoan eskura jartzen diren kontsumoko beste hainbat ondasunen moduan. Asko dira beren osasuna gutxi zaintzen dutenak, daukaten erantzukizunari uko eginez, eta medikuntza teknikak ekarritako osasunean neurritz kanpo usteon izanez.

Beste gertakari bati buruz ere ohartarazi nahi genuke, berez erabat baikorra izanik ere, ahaztu ezin ditzakegun ondorioak ekar ditzakeelako. Oinaze fisikoa, gaur egun, teknika aldetik konpon daitekeen arazo bihurtu zaigu, medikua-gana joanez konpondu, alegia, analgesikoak hartuz edota oinazearen aurkako beste teknikak erabiliz. Poliki-poliki gizakiari ahazten ari zaio zer den oinazeari aurre egitea. Eta oinazea datorrenean, ez daki oinazea kentzeko ahaleginak egitea besterik. Baina, horrela jokatzuz gero, ez al da biziaren alderdi oinazetxoa nork bere gain arduraz hartzeko ahultzen, kontuan izanik, alderdi oinazetxo honek, min fisikoaz gainera, berekin izan ditzakeela organismoaren beherakada, zahartzea, gorputz-atalen bat galtzea, gaixotasun kronikoa, eta baita sufrimendu morala, ezbeharra, porrota, bakardadea eta heriotzaren hurbiltasuna bera ere? Nola sendotu gaurko gizaki hau, gure bizitzak nahitaez berekin duen sufrimenduari duintasunez aurre egin diezaion?

Norberaren osasunarenganako ardura gutxi duen jokabidearekin batera, beste muturrean, «osasunarekiko idolatria» dei dezakeguna ikusten dugu. Zenbait pertsonarentzat osasuna zaintzea eguneroko beren bizitzaren helburu bakar bihurtzen da. Bere gorputzaz bakarrik arduratzen dira, edota beren egoera animikoaz bakarrik. Bere funtzionamendu onerako bakarrik bizi dira ia: zer jango duten, zer sendagai hartuko, nola zainduko gorputzeko sasoiak eta edertasuna, edo beren barruko bakea. Gero eta ugariagoa da, beren gorputza batez ere zaintzen ahalegintzen direnen kopurua: garbitasun xehea, gimnasia, kirola, pisuaren kontrola, janarien aukera egokia, aldian-aldiko osasun miaketak, masaialdiak, sauna, «footing»-a. Dena eskas da gazte eta kementsu irauteko.

Ezbairik gabe, pozarren balioztatu behar dugu gorputza birraurkitze hau, neurri egoki batean suztatu egin behar dugu, pertsonari era osasuntsu eta egokian hazten lagunduko dion guztia. Hala ere, ezkutatu nahi ez ditugun galderak sortzen dira gure baitan. Osasungarria ote da norberaren osasuna ia itsutu eta kezkatzeraino zaintzea, den-dena osasuna zaindu eta gartzearen zerbitzura jarritz, ahaleginik onenak horretara emanez, galtzen dena galtzen dela, norberak bizitzan duen egitekoa ere ahazteraino? Osasuntsua ote da «gorputzaren funtzionamenduaz» hain alde bakarretik eta hain partzialki arduratzea, ahaztuta utzi-

rik, alegia, bihotzeko eta adimeneko osasuna, sormena, komunikazioan haztea, barne-bizitzaren garapena eta Egilearekiko irekitasuna?

Eraso indar suntsitzailearen hazkuntza

9. Ezbairik gabe, seinale askok ematen dute aditzera, hazten ari dela giza bizitzarekiko estimua, bizidun ororekiko onginahia edo naturazko ingurugiroa-renganako begirunea. Eta, hala ere, agertzen hasiak dira, baita gure artean ere, biziaren aurkako eraso suntsitzaileak. Behin baino gehiagotan aztertu dugu eta gaitzetsi, geure herria zigortzen duen terrorismoaren bortxakeria. Gaur, «biziaren aurkako» jokabidetatik sortzen diren beste bortxakeri moduei buruz, hain zuzen, jakinaren gainean jarri nahi zaituztegu.

Bada indar suntsitzaile bat, bere sustrai nagusia frustrazioan duena. Pertsona bat bere goiasmorik sakonenetan zapuzturik bizi denean, jadanik nahitasunean, laguntasunean, zuzentasunean edo ontasunean ez sinesteko moduan, erraza da horrelakoetan etsaigoa, arbuioa, biziarekiko gorrotoa indartzea. Pertsona horrela aurkitzen denean, beharturik dago erakustera, mesprezoagarri dela gizartea, gezur hutsa dela bizia, dena gaizki dagoela, gaiztoak direla gizon-emakumeak, eta norbera ere gaiztoa dela. Orduan suntsitu egiten dira ideiak eta balioak, zikindu kaleak eta itsusitu bazterrak. Norberaren burua suntsitzeraino ere iristen da. Bide horretatik buru-hiltze psikikoraino, eta baita fisikoraino ere, iritsi liteke.

Bada beste indar suntsitzaile bat, bizitza huts, murriztu eta gizakitasunik gabekoaren ondorio dena. Gizakiak ez du onartzen hustasunik. Beharrezko zaio bizitzari norabide bat ematea, munduan arrasto bat uztea, badela sentiaraztea. Eta ahalmenik ez badu bizia sortzeko, bizia suntsitzeari ekingo dio. Bizia sortzeko beharrezkoak dira ilusioa, eragina, lana eta jardutea. Suntsitzeko, berriz, nahikoa da indarra erabiltzea. Horrelakoetan pertsonak baieztatu egiten du bere burua, eta norbait badela uste izaten du suntsituz, tratu txarrak emanez, kalte eginez.

Izen handiko psikologoek aditzera ematen digute, badela joera bat, gure gizarte barrutian, batez ere gazteen artean, dirudienez zabaltzen ari dena: hilik dagoenarekiko zaletasuna, «nekrofilia» moduko bat. Bizitzari norabide bat aurkitzen ez zaionean, pertsonengan hazi daiteke hilik, mugagabe eta bizigabe dagoenarekiko zaletasuna. Pertsonak baino lilura handiagoa sortzen dute makinek eta autoek. Bizidunak baino erakartasun handiagoa du mekanikak. Gaua gehiago maitatzen da, egun argia baino. Zarataz eta zorabioz gehiago gozaten da, isiltasunaz eta barne-hazkuntzaz baino. Bizia maitatzearen eta bizipozaren ordez, mekanikaren hoztasuna eta funtzionamenduaren gogorra jarri ohi dira.

Ohar bat egin nahi genuke, kezkarri zaigun beste gertakari bati buruz ere. Estatistiken arabera, Euskal Herrian bere burua hil dutenen kopurua urtero luzaz ehunik gorakoa da, eta, datuak zehatzak badira, hiru pertsona dira egunero beren buruak hil nahi dituztenak. Norbanako isolatu batzuen arazoa bakarrik ote, edota bere azken ondorioetan, «buru-hiltzaile» izan daitekeen kultura baten sintoma latza? Zergatik dira gero eta gehiago, bizirik irauteko arrazoirik gabe geratzen diren pertsonak? Zer da berauek ez daukaten eta gizarte honetan

aurkitzen ez duten hori? Zergatik bukatzen dute, ez ezertan, ez inorengan, sinesten ez dutela?

Atsegina bilatzea eta besteren oinazearen aurrean axolarik eza

10. «Ongi-izatearen gizartea» deiturikoa, argi eta garbi hedonista den gizarte bihurtzen ari da; gizarte honetan atsegina goraipatzen eta bilatzen da pertsonaren helburu gorena bezala. Askorentzat badirudi bizitza, hain zuzen, atseginik handiena gozatzean datzala, eta sufrimendurik txikiena jasatean. Eta gizartean gehiagotzen doan bezala, gero eta atsegin bortitza, garestiago eta sofistikatua goak bilatzea, gehitzen doa, baita ere, axola eta sentiberatasun eza besteren oinazearekiko. Ume eskale bat gure alboan egoteak, edo atzerritik etorritako bat gure artean ikusteak, aztoratu egiten du eta ezin eramana sortzen. Hobe da, urruti edukitzea horrelakoak, eta harreman bizi oro etetea sufritzen dutenen munduarekin, eta geure ongi-izate txikian geure buruak isolatzea, besteren sufrimenduaren aurrean geure bihotza anestesiatuz.

Bestalde, gure egunotako kulturak balioztatzen duena gizon osasuntsua da, gaztea, indartsua eta kementsua; eta, aldi berean, ez dio baliorik ematen zahar, gaixo eta ahulari. Osasuna suzatu nahiak berak eramaten du askotan pertsonarentzat hain gizakoi eta erabakior diren gauzak ahaztea, hala nola gaixotasuna, oinazea, zahartzaroa edo heriotza. Osasunera eta gozamenera zuzentzen da gaurko hezkuntza, baina inon ere ez da ikasten zein den modurik gizakoiena gaixotasunari aurre egiteko, edo zer esan nahi duen sufrimenduak gure bizitzan. Gure gizartean ahaleginak egiten dira umeei heziera ematen sexualitate misteriorri eta biziaren sorrerari buruz, baina inork ere ez digu hiltzen erakusten. Heriotza osasun egituren esku geratzen da, ezarian-ezarian arazo tekniko bihurtzen ari da; bizitzarako hain une erabakiorrean garrantzia ez zaio hiltzearen beraren duintasunari, solidatzari edota giza ingurune bat edukitzeari ematen; baizik eta garrantzizkoa biziaren konstanteak zaintzea da, eta oinaze fisikoari irtenbide ematea. Heriotza ez da jadanik ez misterio, ez jomuga. Ez du laguntzen bizia ulertzen. Ezinbesteko ezbehar triste eta higuinagarria da, eta lehenbailehen ahaztu behar dena.

Era berean, gizartea, funtsean, ahulenen eta behartsuenen zerbitzura egituraturik dagoenean, ulergarria da osasun-zainketa eta bizi-kalitatea behartsuenen eta ahulenen eskuera beti ez egotea. Badira gure artean gaixo behartsuak, bakarrik dauden zaharrak, zaindugabeko gaixo kronikoak, bertan behera utzitako drogazaleak, elbarri fisiko eta psikikoak, depresiodunak, medikuen arretarik ez duten gaixoak, eta hauek laguntzarik gabe eta bazterturik geratzen dira, sasoiaren dutenentzat egin dagoen, eta ahulagoak direnen osasunarekiko sentiberatasun gutxi duen gizarte honetan.

Gaixotasuna sortzen duen gizarte batean bizitzeak duen arriskua

11. Aspaldidanik uste den gauza da, litekeena dela gizartea bere osoan gaixorik jartzea, eta giza bizitzaren garapen osasuntsua galarazten duten jokabide, portaera eta ohitura kolektiboak bultzatu eta garatzea. Eztabaidan hasi gabe zer den «osasun soziala» edo «osasun kolektiboa», orokorki esan dezakegu, badi-

rela ezaugarri batzuk gizartea gaixorik dagoela adierazten dutenak: berak sortu-tako gizarte giroan pertsonak erraz eramaten direnean, maila batean edo beste batean eramanez, hondamendi fisiko eta psikikora, zatiketa jasatera, burua galtzera, gauza huts izatera edo giza izaera desagertzea.

Ezbairik gabe, oker jokatzeko litzateke, gaurko gizartea margo ilunez eta ezkorrez marraztea, eta aurrerapenak giza bizitza hobetzeko ekarri dituzten alderdi on guztiak ahaztea: etxe-barruan eta etxeko lanetan, lantegi eta industri esparruan, edota edozein gizarte zerbitzutan. Denok dakigu zer-nolako aurrerapenak egin diren osasuna zaintzeari dagokionean edota heziketa alorrean, kultur eta arte mundurako sarbidean. Gaurko gizakiak egokiera berriak ditu bere zaletasunak zaintzeko, atsedenaldirako eta bere astiaz atseginez gozatzeko. Guzti honek pozgarri izan behar du, eta eskerronez aitortu behar dugu. Baina, hala ere, gogoratu beharra daukagu, badirela gaur egun zenbait eragozpen, askori hazten eta era osasuntsuan garatzen uzten ez dietenak.

Gure gizartean ikusten dira jadanik, *ugaritasunaren gaixotasuna* adierazten duten ezaugarri tipikoak: gehiegi jaten da, eta edaten. Gauza guztietan, pertsonarentzat azken batean kaltegarria den erosotasuna eta errazkeria bilatzen da. Asko jateak, alkohol gehiegiak, tabakoak, aulkiari lotuta egonean bizitzeak, ageriko ondorio fisikoak dakartzate: gizen egotea, hipertentsioa, aldaketa kardio-baskularrak... eta gainera, errazkeria eta erosotasun gehiegizko bizikera; horrela, ordea, galdu egin dira zenbait alderdi on: esate baterako, neurritasuna, eta sakrifizio eta laztasun espiritua; galarazi egiten da askotan gizakiaren hazkuntza, murriztu sentiberatasuna, lozorrotu barne-bizitza, sendotu errepresioa. Ugaritasun patologikora eta neurrigabeko erosotasunerako joera hau, ez ote da barne-hustasun baten ordain moduko bat, eta pertsonak bere buruarekin, besteekin eta Jainkoarekin dituen harreman hautsien ordain moduko bat?

Depresioa zabaltzen ari da gure artean, egiatzko izurritearen antzera. Badi dira pertsonak aldian-aldian depresioan erortzen direnak. Beste batzuk mugamugan bizi dira, emozio-tinkotasunik gabe, bizitza lorrean eramanez, zama bat bezala. Izan ere, egunotako gizakiaren bizimoduak ez dirudi barne sendotze izango diren pertsonen hazkuntzarako laguntzen duenik; baizik eta ahulak eta aldakor izatera eramaten ditu. Ezbairik gabe, gizabanakoen aldaera psikosomatikoek badituzte beren zergati jakinak. Baina, zer da hainbeste bizitzatan falta dena? Zergatik bizi dira ezer sortzeko gogorik gabe, etsipenduak, ezeri maitasun baikorrik eduki gabe, gogorik gabe eta aspertuak beti, beren eguneroko bizitza argitu eta bizkortzeko duen inolako eraginik gabe?

Ez dira hain gutxi beren *bizitzari zentzurik aurkitzen ez diotenak*. Arrotz aurkitzen dute beren burua, kanpoko eraginaren arabera diharduen gauza bezala bizi dira. Ez dakite zer nahi duten eta zertarako bizi diren. Aditu gehienek uste dutenez, norabiderik ez izatea da gaur egungo gizakiaren neurosiarik astunenetako bat. Pertsonak bizitzari zentzurik aurkitzen ez dionean, hutsa bezala aurkitu ohi da, bere beharkizunik sakonenean kale egina. Horrelakoetan zaila da, denen barrura sartzen den asperduran, gogaikerian, asperraldi lainotsuan ez erortzea. Pertsonak gozaldia bilatzen du, mugimendua, eta desberdinaren edo berriaren atzetik doa. Aldatu egiten du autoz, etxebizitzaz, irudiz eta baita ezkonlagunaz ere. Giro berriak bilatzen dira, harreman berriei ekiten zaie. Baina norakorik eza ez da kanpotik sendatzen den gauza.

Ez da arrunkeria izango, hemen *neurrigabeko kontsumismoa* gogora ekartzea, hori bait da zenbait bizitzetako gaixo-itxuraren seinalerik astunenetako bat. Kontsumo osasungarria, pertsona baikorki aberasteko iturri on izan daiteke, baina okertu egiten da, bizitza azaleko behar-izanen betetze huts bihurtzen duelako, eta gizakiaren sakonagoko behar-izanak ahaztu egiten dituelako. Pertsona askorentzat «erostea» bihurtu da beren bizitzetako ekintzarik garrantzitsuenetako bat. Erosi egin behar da, azken moldeak erosi, azkena atera dena eramanez, modaren arabera bizi. Orduan, bizitza gauzen mende jartzeko arriskua dago, gero eta gehiago. Bat zer den eta batek zer bizi duen, horrek ez du garrantzirik; nork zer erosten duen, zeren jabe den eta besteen aurrean zertaz harro daitekeen, honek du garrantzia. Jarrera hau oraindik makurragoa gertatzen da, pertsonak bere bizitza osoan jobakide kontsumista duenean, irentsi egiten bait ditu gauzak, jantziak, edariak, autoak, telebista, jaialdiak, aldizkariak, liburuak, mintzaldiak, kultura, erlijioa. Gauzekiko hain osasun-kontrako harremanak izaten direnean, bai al dago hazkuntza osasungarria edukitzerik? Joan Paulo Makdio, «'kontsumokeriak' itsututa bizi den gizakiak galdu egiten duela, gozamen honetan, bere gizatasunaren neurri betea, eta bere biziaren zentzurik sakonena- ren kontzientzia ere galtzen duela»³.

³ Homilia Turingo Katedralean, 1980, apirilak 13.

II.- GALDERAK ETA KEZKAK

12. Giza bizitzaren balioaz ardura duen, eta egunotako kulturaz sentibera den edozein gizaki, galdera latzak egin beharrean gertatzen da, bakoizka eta gizar-tean ikusten diren balioztatze, jokabide eta portaeren aurrean, bizia babestu eta suztatu beharrean, hondamenera bait daramate, hustutzero eta baita desegitera ere. Kezka areagotu egiten da oraindik, ikusiz, askotan, «biziaren kontrako kultura» hau zabaltzen ari dela gure artean, eta aurrerapen itxura ematen zaiola, eta maila hobeko bizimodu baten aldeko borroka itxura.

Kristau direnen artean ere, gero eta joera handiagoa dago, fedea, eta honek giza bizitzaren esparruan dituen eskakizunak elkarrengandik bereizteko. Alde batetik, beren kristau bizipenean ez dute, bizitza era osasungarri, baikor eta erabat gizakioan ulertzen eta bizitzen lagunduko dien oinarriak aurkitzen. Bestalde, fedean ez dute behar den funtsik eta eraginik aurkitzen, giza bizitza sutuko eta erantzukizunez babesteko, bizitzaren maila hobea eta osotasuna indartzen eta garatzen duen guztiaren alde borrokatzeko, eta jarrera, jokabide eta prozeduren aurka lan egiteko, hauek, modu batera edo bestera, bizia txarragozten eta hondatzen dutenean, bizitzaren garapen betea oztopatzen dutenean edota desegiten ere dutenean.

Biziaren balioa

13. Biziarekiko errespetua printzipiorik sendoen eta garbientako bat bezala agertzen da gure kulturaren. Printzipio horren sendakuntzak ez dirudi arrazoizko ahaleginik inolaz eskatzen duenik. Elkarteko kide guztiek babestea eta errespetatzea merezi duen ondasuna da giza bizitza. Oinarrizko eskakizun hau gabe ezinezkoa da elkarrekin baketsu bizitzea gizon-emakumeen artean.

Hala ere, ongi-izatearen kultura denen gaineko balio bezala ezartzen denean, dena bere azpian ipiniz, anbiguotasun etiko bat zabaltzen hasten da gizar-tean; galdera sortzen da, zer balio duen kalitate maila jakin batera iristen ez diren bizitza horiek, eta bizitza horiek arbuia eta suntsitzeko tentaldi erraza sentitzen du. Baina gizakioa ote da, bizitza beteago baten alde egunotako gizakiak duen sentiberatasun hori mehatxurik gogorrena bihurtzea, hain zuzen, ahulenen eta behartsuenen bizitzarentzat? Jaiogabeen bizitzaz erabakiak hartzen direnean, zenbait gaixorentzat era gutxi-asko ezkutuan eutanasia planteatzen denean, eta interesik ez duten zaharren sendakuntzari ardura gutxi jartzen zaioenean, giza bizitzaren izenean ari ote dira, edota batzuen interes berekoien izenean? Ez al da beharrezkoa, gizaki orok duen bizitzeko eskubidea babestu, sendotu eta zehaztea, legegintza politikoa gizakiaren bizia noiz babestu behar den eta noiz ez, mugatzeko eskubideaz jabetu aurretik? Zergatik balio du batzuen biziak, eta besteak ez? Nola kendu bere balioa batzuen biziari, eta aldi berean baliorik gabe utzi ez beste edonoren bizia?

Bestalde, teknologiaren aurrerapenak bide ematen du gaur, gero eta egin-kortasun eta ausardia handiagoz parte hartzeko biziaren sorreran (iraultza genetikoak), ernalkuntzan (artifiziozko ugalketaren teknikak), bizitzaren luzapenean, oinazea deuseztatzean, eta giza biologiaren beste hainbat esparrutan,

arazo etiko sakon eta nahasiak planteatuz. Baina, zenbat eta handiago izan giza-kiaren ahalmen teknikoa, ez al da oraindik indartsuago sentitzen biziaren zerbitzura dauden irizpide etiko sendoen beharra, hain zuzen ere ustezko aurrerapenak gizakiaren beraren aurka joka ez dezan?

Zer-nolako bizia?

14. Gaur egungo gizakiak bizi egin nahi du, gero eta gehiago bizi, gero eta hobeto bizi, gero eta beteago; baina bizi, zer? eta bizi, zertarako? Esan ohi denez, inoiz baino hobeto horniturik gaude bizitza osasuntsua eta maila hobekoa bizitzeko, baina zer da gizaki osasuntsu izatea? Zer da gizakiari dagokion neurriko bizitza? Luzeago egin dugu bizitza, erosoagoa, atseginagoa; baina ez al dugu bizitza hutsagoa egin, axalekoagoa, eta funtsik gabea? Hau al da bidea gizakiagan datzan bizitzeko gogoari bere betea emateko?

Bestalde, bada kultur gertakari bat kezkatzen gaituena; badirudi, elkar hartze bat izan dela berori isilpean gordetzeko. Gero eta gutxiago hausnartzen da biziaren azken esanahiaz eta misteriozko eiteaz. Egilearekiko harreman guztiak moztu ondoren, eta izadiak haraindiko helburua kenduz, gizakiaren bizitza ohikeria huts bihurtzen ari da, ongi-izatez eta bizipen atseginez bete behar den gertaera soil. Baina, egiazko aurrerapena ote da bizitza hain era soil eta hain alde bakarretik ulertu eta bizitzea, edukiz ikusmiraz eta esanahiz hain murriztua, gaurko gizon eta emakume askok bizi duten eran?

Arinkeriaz eta zehaztasunik gabe zabaldu den zientifismo murriztaile hori bide ematen ari da, batez ere belaunaldi gazteen artean, giza bizitzari buruzko ulerkuntza nahiko pobretzailea zabal dadin, giza bizitza makineria fisiko-kimiko nahasi baten ihardunbide huts bihurtuz, eta ia lekurik utzi gabe gizakiak bereak dituen askatasun eta jatortasunerako. Ez al da kezkarria, gure kulturen jakintza biologikoari buruz ñabardurarik txikienaz hain interes handia egotea, eta, aldiberean, hoztasun eta axolagabekeria ia erabatekoa ikustea, giza bizitzaren alderdi funtsezko eta oinarrikoei buruz.

Zer-nolako osasuna?

15. Gaurko gizakia asko arduratzen da osasunaz, beronen bila dabil, eta beroren alde borrokatzen da. Ikusi ere ikus dezakegu, izadiak haraindiko salbame-naren kezka ordez, neurri handi batean, beste kezka bat sortu dela: honaindiko osasunaren kezka. Baina osasuna bilatze hori era askotara uler daiteke.

Ezer baino lehen, gogora dezagun, ez dela erraza zehazten, zertan datzan osasuna eta nori esan diezaiokegun gizaki osasuntsu. Izan ere, osasunaren kontzeptua gizakiari buruzko ulerkuntzatik eta eredutik dator. Horregatik, zientziak zenbait osagai objektibo eskura jar baditzake ere osasunaren edukia mamitzeko, gizartea bera da osasunaren kontzeptua sortzen duena; eta gizarteak mugatzen du, zer den «bizitza osasuntsua» eta zein den «osasuntsu» edo «gaixotzat» jo daitekeena.

Geure buruei galdetu beharrean gaude, zer-nolako giza eredia datzan osasunaren azpian, berau gehiegi mediku eta teknikaren mende dagoenean, edota era inozoan amets eta absolutu bihurturik dagoenean. Gorputzeko

era inozoan amets eta absolutu bihurturik dagoenean. Gorputzeko kulturaren garapena ez al da alderdikoia eta zatikatuegia, pertsonaren funtsezko beste bali-oak ahazten direnean? Aski ote da gaixorik dagoen gorputz atal bat sendatzeaz batez ere arduratzen den medikuntza eredu, pertsonaren sendakuntza osoaz arduratu gabe? Nahikoa ote da, bere baitan itxia balego bezala hartzen den giza psikismoa zaintzea, pertsonaren espirituzko alderdia eta izadiak haraindikoa sistematikoki ahazten direnean? Nora darama osasuna sasi-jainko bihurtzeak? Geure osasuna zaintzeko bizi behar al dugu, ala geure osasuna zaindu behar dugu gizakiari dagokionez bizitzeko?

Bestalde, oso norberarena da osasunaren esperientzia; bakoitzak era gutxi-asko osoan uler eta bizi dezake, edota zatikatuan; pertsonarentzat aberasgarria izango den eran, edota era murriztale eta okertuan. Norabidetu behar den esperientzia da osasuna. Horregatik, ez da alferrikako izango geure buruei galdera hau egitea: zer-nolako osasuna nahi dugu? Zergatik bilatzen dugu osasuna? Zerk du lehentasuna bizitza osasuntsuan?

Gizakiari dagokion bizitza, ala ongi-izate huts?

16. Osasunari buruzko gure ulerkuntza ongi-izatearen kulturak moldatua da, eta, beraz, kultur hautapen jakin bat darama azpian, beste hautapenen artetik aukeratua. Gizaki modernoarentzat, ongi-izatea sortzen duena ona da; eta ongi-eza dakarrena, txarra. Horrelako ikuspegian, oso erraz gauza berdintzat jotzen dira osasuna eta ongi-izatea.

Hala ere, ongi-izatearen kontzeptua era askotara uler daiteke, eta ez dator nahitaez bat gizakiaren egiazko osakuntzarekin. Gazte batek alkohola edo droga har ditzake «ongi-izatea» sentitzeko, baina, jakina denez, ez da osasuntsua bere jokabidea. Pertsona batek ongi aurki dezake bere burua zuzenkontrako gizarte batean, bere ongi-izateaz bakarrik arduratzen delarik, eta ahulen eta baztertuen sufrimendua ahaztuz, baina zaila da esaten osasuntsu denik horko sentiberatasun eza.

Bestalde, norbaitek erantzukizunez bere gain hartzen badu bere bizitza osotasun betera eramatea, ez du beti ongi eta eroso aurkituko bere burua. Beneratan gizakoia den bizitzak, askotan, borrokatzea eskatzen du, uko egitea, sakrifizioa, ukapenezko bizitza, eta bizipen hauek guztiak ez dira beti ongi-izatearen ohizko kontzeptu barruan sartzen. Horregatik, gelditu beharra dago, nolako ongi-izatea bilatzen dugun, nolako edukia ematen diogun geure ongi-izatearen gogoari, zertan dagoen gure zorionaren funtsa.

Zer egin sufrimenduarekin?

17. Aurrerapen modernoak bere-berea du, neuri handi batean, giza bizitzatik sufrimendua kentzeko borondatea. Hala ere, sufrikizuna mila modutara sortzen da behin eta berriz pertsonen bizitzan, lurrera botez hain ahalegin on eta ohargarriak. Giza bizitza mugatua da eta zauritu-erraza; sufrimendu zorian aurkitzen da beti, eta gaixotasunak, ezbeharrak, edota zorigaitzak mehatxatua; eta nahitaez zahartzera eta hiltzera behartua dago.

Bestalde, ez dugu ahaztu behar, gizakia bera dela arazo batzuk konpontzen dituen, eta beste batzuk sortzen dituen. Gaixotasun batzuk menperatzen baiditu ere, gaitz berriak sortzen ditu. Oinazearen kontra borrokatzen da, eta sufrimendu berriak ekartzen ditu. Oinaze-minik gogorrenak (gosetea, behar gorrak, guduak, terrorismoa, bortxakeriak...), edota pertsonen atsekaberik handienak (bakardadea, ezkonduen porrotak, etxeko arbuioa...), gizon-emakumeen zuzengabekeriatik eta berekoikeriatik sortuak dira.

Benetan iruzur egitea izango litzateke, biziak hitz egitea, osasuna goraltzea edota ongi-izatearen alde jokatzeko, eta, aldi berean, isilean gordetzea gaixotasunaren arazoa, sufrimendua, injustizia suntsitzailea edota heriotza. Bizitza osasuntsu eta zoriontsu baten gai-asmoa planteatu bai, baina hori kontraesanak ahaztuz eta gizakiaren era askotako sufrimendua onartu gabe egitea, amets hutsezko zerbaitea planteatzea da, eta gizakiaren galdera latzenei ez erantzuteko moduan planteatzea.

Horregatik, ez da bidezko giza bizitzaz hitz egitea, zenbait galdera kezkaririri erantzun bat ematen ahalegindu gabe: Zer egin sufrimendurekin? Nola onartu gaixotasuna? Betearen betez bizitzeko, ezabatu egin behar ote da derri-gorrez gure bizitzetatik sufrimendu eta oinaze oro? Gaitzik ez izate hutsa ote da osasuna, edota, hain zuzen gaixotasuna bera ere, eta gure bizitza ahul eta suntsikor honen ezinbesteko mugak ere era osasuntsuan bizitzean datza osasuna? Bestalde, zer egin besteen sufrimenduren aurrean? Nola begiak itxi hainbeste oinaze eta minduraren aurrean? Nola eraiki nik neure ongi-izatea, hainbeste gizon eta emakume oinazetan suntsituak direlarik urrutian, edota nire alboan?

Osasuna bakarrik edo salbamena ere bai?

18. Gorputzari loturiko giza bizitza beharturik dago, nahitaez, biologi mailan suntsitzera. Alferrrikakoa da heriotza hutsal egin nahia, gauza ezereza balitz bezala. Orain edo gero, sortuko da giza bizitzan utzi-ezinezko galdera: Zer gertatuko da, azkenean, guztiekin eta gutako bakoitzarekin? Zertan bukatuko da hainbesteko arretaz zaindua eta hainbeste medio teknikoaz luzatua izan den bizitza hori? Zein izango da hainbeste arretaz zaindutako gorputz horren azkena?

Badirudi, gaurko gizakiak aski duela osasuna izatearekin; ez ote du salbamenaren beharrik? Asko bizitzeak eskatzen du, hobeto bizitzeak, baina, funtsean, ez ote du amesten betiereko bizia eta bizi betea? Gure osasuna ez ote dago salbamenaren beharrean, gizakiak bere bihotz-barruan duen bizi betearen ametsari erantzungo badio?

III.- BIZIA, JAINKOAREN DOHAINA ETA GIZA EGINKIZUNA

19. Liburu Santuan ezagutzera ematen zaigun Jainkoa, «bizia maite duen» Jainkoa da (Jak 11,26); gizakiek «bizia izan dezaten eta ugari izan dezaten» (Jn 10,10) gure haragi hilkorra hartu zuen Jainkoa. Jainko honengan dugun sinesmenak eragiten digu, zuei –era xumean baina uste osoz eta pozez– «biziaren Ebanjelioa» (ikus 1 Tm 1,10) aurkeztera, hor aurkitzen bait dugu kristauok argirik distiratsuena, eraginik bizkorgarriena eta biderik egokiena, benetan gizalegezkoa izango den bizitza eraikitzeko.

«Bizia maite duen» Jainkoa

Badira, beren sineste ilunak eraginik, pentsatzen dutenak, Jainkoa mehatxu bat dela gizakiarentzat; desegin beharra den indar zapaltzaile bat, alegia, bizitza pozik eta beteago bizi ahal izateko; guk, alderantziz, geure fedea aldarrikatu nahi dugu: gizakiaren lagunik onena eta beronen biziaren zaintzailerik seguruenena den Jainkoagan dugun fedea. Horrela ematen bait zaigu agertzera, Israel herriaren historia santuan zehar.

• *Bizia, Jainkoaren dohaina*

20. Gauza nabaria da gizaki guztientzat, besteengandik hartzen dugula bizia. Ez diogu geuk geure buruari eman. Baina fedea sakonago begiratzen du gure izatearen misterio barrura. Bizia, azken batean, Sortzailearengandik dohainik hartutako erregalia da. Berarengan dago «bizi iturria» (Sal 35/36, 10). Gizakiak duen ondasunik ederrenaren sorburua, biziaren sorburua alegia, ez dago norberarengan. Izakiaren azken misterioa den Harengan dago sorburu hori, Maitasun sortzailea den Jainkoarengan (Gn 2,7).

Gizakia ez da bizira txiripaz, ustekabez edota nahikeriaz etortzen, Maitasun sortzaile horren ondorioz baizik. Jainkoa bera da bizitzera dei egiten diona; Jainkoak egindako «miraria» da gizaki bakoitzaren bizia: ale bakarra eta errepika-ezina da bizi bakoitza, guztiz berria eta ordezkia-ezina, lehen behin ere izan ez dena eta geroan ere izango ez dena. Bizitza horren barruan gertatzen da gainerako guztia: gu Jainkoarekin eta besteekin elkartzea, geure izaera guztiaren haztea, geure askatasunaren eta maitasunaren garatzea.

Horregatik, biziari buruz, lehenengo gauza, bizitzagatik poztea da. Jainkoarengandik jaso dugun lehenengo agindua, bizitzekoa da; harlosatan idatzia ez, baizik eta geure izaeraren sakon-sakonean ezarria dagoen agindua. Jainkoari zor diogun menpekotasunaren lehenengo adierazpena, bizia maitatzea da, esker onez onartzea, arretaz zaintzea, bertan gorderik dauden ahalmen guztiak zabaltea. Izatearen poz hau, eta bizia erregali eta bedeinkapen gisa onartze hau, egiazko bizitza eta osasunaren seinale dira. Biziazatik goratu eta eskerrak ematen ez dakiena, edota eskerrak emateko gai ez dena, nolabait gaixorik eta heriotzaren mende bizi da oraindik.

- **Bizia bortxa-ezina**

21. Gizakiaren bizia hauskorra da, ahula eta galkorra. Liburu Santuko idazleek hondarrarekin parekatzen dute, gaur zerbait den eta bihar ihartua geratuko den landako lorearekin, itsasoko ur ttantta pittinarekin, haizemate hutsalarekin, ezereztua geratzen den kearekin.

Baina ahula eta galkorra den bizi hau gauza sakratua eta bortxa-ezina da. Bere arnasa eman dio Jainkoak gizakiari (Gn 2,7). «Bere antz-irudira» sortu du (Gn 1,26-27). Ez du inork eskubiderik, bizia berak nahi bezala erabiltzeko, ez bere bizia, ez besterena. Jainkoagandik hartutako bizi hau da gizaki bakoitzaren jatorrizko duintasun hautsi-ezinen oinarria; bizi hori da lehenengo eta oinarrizko balioa, eta hor dituzte beren zainak eta hortik garatzen dira, gizakiaren beste balio eta eskubide guztiak. Bizinari buruzko eskubidea ez da bizinari gehigarri emandako zerbait, gizakiari aitortzen zaizkion eskubideen artean eskubide bat gehiago balitz bezala; bizia bera da eskubide honen iturburua, ikutu-ezina eta bortxa-ezina den bizia, Kreatzailearengandik sortua delako Berarekin loturanean dagoen bizia.

Badakigu, biziaren balioa zaindu beharrekoa dela, edozein erlijioaren gainetik; biziarekin berarekin loturik dagoen baliorik nagusien bezala zaindu ere. Bestalde, biziaren jabe eta jaun bakarra Jainkoa dela esateak ez gaitu eraman behar, Jainkoa zikoitza eta fidagaitza den norbaiten antzeko ikustera. Jainkoa jaun bakarra izateak ez dio kentzen behin ere gizakiari bere burujabetza zuzena. Jainkoaren erregalia erabatekoa da, eta bizia gizakiaren askatasun eta arduraren mende utzia geratzen da. Baina Jainkoak erregali ematen duen bizi hau, pertsonaren duintasunetik zuzenean sortzen den, eta ikutu-ezina den balio nagusia da. Beraz, inork ez du eskubiderik bizia nolana erabiltzeko, edozer gauza balitz bezala edota bere esku dagoen tresna bat balitz bezala.

- **Biziaren bidea**

22. Bada hainbat jende, uste honetan bizi dena: kristauon moral araudia, azken batean, bizitza era pozgarri, bete eta zoriontsuan bizitzea galarazten duen lege eta agindu multzo bat dela, alegia. Hauentzat, erlijioa, giza aurrerapenerako eragozpen bat da, eta giza bizitza neketsuagoa eta eraman ezinagoa egiten duen zerbait.

Konturatzen gara, gehiegikeria eta okerrik asko egin izan dela mendeetan zehar, erlijioa eta moral argibideak okerreko adieran erabiliz. Baina Bibliako historia irakurtzen duenak ikusi ahal izango du, egiazko Jainkoa gizon-emakumeon bizitzan sartzen denean, gizakia salbatzeko bakarrik sartzen dela, gizakia askatzeko, berari ahalmen berriak emateko, eta gizakion bizi maila gora-tzeko. Jainkoak beti gizakion onari begiratzen dio, eta ezezko borobila ematen die giza bizitza morrontzapean jarri edota suntsitzeko ahalegin guztiei.

Horregatik, Israel herriak bizi iturri gisa hartzen du Jainkoaren Legea. Dekalogoko «hamar hitzak» eta hauen ondoren sortutako Ituneko Lege Liburua –nola bizi behar duen gizakiak Jainkoaren eta beste gizakien aurrean, bere famili eta gizarte bizitzan, izadiarekiko bere harremanak ere barne direla, zehazten dituen Lege Liburua, alegia– bizi betea lortzeko egiazko bidea dira. Israeldan

rrek esker onez eta gogo biziz hartzen dituzte moral argibideak, biziemaile direlako gizakiarentzat: «Ez ditut ahaztuko sekulan zure arauak, haiekin eman bait didazu bizia» (Sal 118/119, 93). «Entzun, Jauna, zeure onginahiez nire oihua, emadazu bizia zeure erabakien arabera» (Sal 118/119, 149). Jainkoaren Legea menpekotasunez hartzeak bizia begirunez hartzera, zaintzera eta suztatzera darama. Biziaren zaindari den Jainkoaren borondatea baztertzeak, berriz, bizia arbuia, hondatu eta erasotzera darama.

Horrela bada, hasiera-hasieratik, Israelek Itun nagusi baten antzera ulertu izan ditu Yahverekiko bere harremanak: Israelek leialtasunez betetzen badu hitzarmena, Jainkoak zainduko du haren bizia; baina, alderantziz, herriak Jainkoa baztertu eta sasi-jainkoetan jartzen badu bere usteona, heriotza eta hondamendia izango ditu ondorio. Hona hemen, herriak egin behar duen aukera: «Begira, bizia eta zoriona, heriotza eta zorigaitza, jartzen dizkizut gaur aurrean. Aditzen badituzu Jaunaren, zeure Jaungoikoaren, aginduak... biziko zara eta ugarituko... Baina zure bihotza okertzen bada eta aditzen ez baduzu... ez duzu luzaro iraungo... Zuk eta zure ondorengoek bizia nahi baduzue, aukera ezazu bizia Jauna, zeure Jaungoikoa, maitatuz, Haren esana adituz eta Hari loturik, Bera bait da zure bizia» (Dt 30,15-20).

• **Behartsuen bizia**

23. Horregatik, hain zuzen, biziaren Jainkoa, bizirik nekez iraun dezaketen «behartsuen Jainkoa» da, eta indartsu eta ahaltsuen gehiegikeriez eta zuzengabekeriez mehatxupean daudenak zaintzen dituen «zuzentasunaren Jainkoa». Bizia leialtasunez maite duen Jainkoa, behartsuen, ahulen, alargunen, atzerritarren eta babesgabeen biziaren zaintzaile azaltzen da beti historian zehar. Horregatik, Israelgo Jainkoa Jainko espatsu edo jeloskorra da; baina ez gizakien biziaren espaz edo bekaizkeriaz, giza biziaren aurka diharduten sasi-jainko guztien espaz baizik.

Jainko hori ezagutzeak, bizia ematen duen zuzenbidean ibiltzea esan nahi du, eta heriotza dakarren zuzengabekeriaren aurka borroka egitea. Jainko honengan sinesteak, sufritzen dagoenaren eta bazterturik hiltzen denaren aldeko solidaritza suztatzea eskatzen du. Jainko honen ahotsa entzutea, Beronen etengabeko deia jasotzeko belarriak eta bihotza zabalik edukitzea da: Zer egin duzu zeure senidearekin? (Gn 4,9.10).

Jesus, egiazko osasun emaile

24. Itun Zaharrean «bizia maite duen» Jainkoa dela agertzera eman zitzaiguna, gizon egin da Jesukristogan. Beronengan ikusi ahal izan dute ikasleek beren begiz, eta ukitu beren eskuz «biziaren Hitza» dena (ikus 1 Jn 1,1). Baina Jesus ez da soil-soilik betiereko biziaren emaile. Jesusen hitz eta egintzek, giza kiari oraintxedanik bizia eta osasuna ematea dute helburu. Hara zer-nolako oroipena geratu zitzaien lehenengo kristau elkarteko ikasleei: «Jaungoikoak Espiritu Santuaren indarrez gantzutua izan zen; eta on egiten eta deabruak hartutako guztiak sendatzen igaro zena: Jaungoikoa Harekin bait zegoen» (Ap Eg 10,38). Zer ekarpen izan dezake gaur egun Jesukristok, benetan gizalegezkoa

izango den osasun eredia bilatze bidean? Zertan egon daiteke, Berak eman dezakeen laguntzarik onena?

- ***Jainkoaren salbamera osasun gisa***

25. Esan genezake, Jesukristo, Jainkoak osasun gisa agintzen digun salbame-naren iragarpena eta eskaintza dela; hain zuzen, gizakien bizitzan Sendatzaile bezala datorren Jainkoa adierazten du, berauen izaerari balio berri bat emanez. Sendaketa, era osoan hartuta –benetan gizalegezkoa den bizitza berreskuratzea, alegia, nork bere duintasuna aitortzea, pertsonak bere gorputzaren gaineko askatasun eta nagusitasun handiagoa lortzea, Jainkoarekin eta besteekin elkarrizketa izateko zabalik egotea–, horrela ulertutako sendaketa aparteko esperientzia gertatzen da, horren bidez iragartzen bait du, eta eskaintzen, Jesusek Jainkoaren salbamera.

Horregatik, Jesusek ez ditu behin ere bereizten «Jainkoaren erreinuaren aldarrikapena» eta «gaixoen sendaketa». Ebanjelioko kontakizunetan beti azaltzen denez, bi egintza horiek osatzen dute Jesusen iharduera mesianikoaren edukia: «Jesus Galilea osoan barrena zebilen... erreinuko berri ona hots egiten, eta gaitz eta min guztiak sendatzen herrian» (Mt 4,23; 9,35; Lk 6,18, etab.). Badu bere garrantzia, Jesusek bere ekintza ebanjelizatzailea eta konbertsiora egiten duen deia sendakuntza gisa ulertzen dituela ikusteak: «Ondo daudenek ez, baino gaixo daudenek behar dute sendagile. Ez naiz zintzoei dei egitera etorri, bekatariei baizik, bihotz-berri daitezen» (Lk 5,31-32 = Mk 2,17; Mt 9,12-13).

Gehiago oraindik. Bere iharduera sendatzailea da, Mesiasen nolakotasuna hobeto adierazten duena. Hor geratzen dira ondoen agerian, Jainkoaren Bidaliaren «egintzak»: «Itsuek ikusten dute, eta elbarriak badabiltza; legenardunak garbi gelditzen dira, eta gorra entzuten dute; hildakoak bizten dira, eta behar-tsuei berri ona hots egiten zaie» (Mt 11,5). Jesusek alderdi fisikoan, psikologikoan edota espiritu alorrean egindako sendaketa horiek ez dira nolahi egindako sendaketa harrigarriak, edota harrokeria hutsez eginak; eta are gutxiago, Jesusek bere jainkotasuna erakusteko arrazoiak; Mesiasen dakarren salbame-naren irudirik adierazgarriena dira, parabolarik argiena eta esperientziarik bizi-ena; hor azaltzen da, hain zuzen, Jesusen ekintza salbatzaile guztiak duen esanahiaren, norabidearen eta edukiaren bilduma eta argitasuna.

Jesusen iharduera sendatzaile hau ez da, gaixorik dauden gorputzak edota hondatuta dauden psikismoak sendatzera zuzendua dagoen mediku ekintza hutsa; ez da erruki edota solidaritzazko ekintza soil. Jainkoagandik datorkigun salbamenaren epifania edo agerpena da: «Nik deabruak Jainkoaren Espirituaz botatzen baditut, garbi dago iritsi dela Jainkoaren erreinua zuen artera» (Mt 12,28). Jesusen ekintza sendatzaileak «bizia maite duen» Jainkoa (Jak 11,26) agertzen du, Israelen Sendatzaile azaltzen zen Jainkoa: «Yahve nauzu Ni, zu sendatzen zaituena» (Ex 15,26). Horregatik, herriak Jesusen ekintza sendatzaile nabaritzen duenean, bere goralpena eta eskerrona adierazten ditu, «Jaungoikoak ikustaldi egin diolako bere herriari» (Lk 7,16).

Gaurko gizakiak –hainbat aurrerapen lortu izanagatik arrazoi osoz harro dagoen, baina hainbat zapalketaz ere kezkatutako motiborik duen gaurko

gizakiak– ez ote dio entzun behar, «galdua zegoena bilatzera eta salbatzera (*sózein* = sendatzera) etorri» den Jesus honi? (Lk 19,10). Alde batetik, bizi maila hobearen bila, eta, bestetik, gizakiaren hondamen larriaren mehatxupearan aurkitzen den kultura honetatik, ez ote genuke gehiago zabalik egon behar, «bizia izan dezaten eta ugari izan dezaten etorria» den Harengana? (Jn 10,10). Gauza nabaria denez, Kristo ez da etorri, bizitza osasuntsu eta beteagoa lortzeko gizadiaren ahaleginak ordezkatzera; baina bai ekintza sendatzailearen alderdi egiazko eta osoak guri ezagutaraztera, eta bizitza benetan osasuntsua izango duen «gizaki berriari» bizi ematera.

- ***Nor bakoitzaren eta gizartearen osasuna***

26. Jesus ez da gizabanakoen osasunaz bakarrik arduratzen. Jesusek Jainkoaren erreinua aldarrikatzen duenean, nor bakoitzaren eta gizartearen sendakuntza prozesu sakon bati ematen dio eragina. Horrekin ez da esan nahi, aspaldidanik helburu jarri izan den «*mens sana in corpore sano*» hura (gogo osasuntsua gorputz osasuntsuan, alegia) nor bakoitzarengan lortzea denik asmo nagusia; baizik eta gizarte osasuntsua sortzea, gizarte horren barruan «gizaki berria» hazten eta garatzen joan dadin bere alderdi guztietan.

Horregatik, Jesusek gaixoak sendatzen ditu, baina gizartearen osasunari ere bizi ematen dio. Gaitzetsi egiten ditu, bere garaiko gizartearen iharduera gizakonstrako eta hondatzaileak; borroka egiten du, erlijio sustraizko jokabide patologikoen aurka; ahaleginak egiten ditu, solidaritazko eta senidearteko elkarbizitza sortzen; bizitzaren eta gizakien aldetik gaizki erabiliez arduratzen da, gizartean baztertuak eta bakardadean utziak izan ez daitezen; gauzak beste era berri batera izango diren, eta egia, zuzentasuna eta maitasuna nagusi izango diren, gizarte batera zuzentzen ditu guztiak; itxaropena esnarazten du gizakiarengan.

Hona hemen, Jesusen iharduera konkretu batzuk, gure garaiotarako esanahi berezia izan dezaketelako, gogora ekarri nahi ditugunak. Egiaren argira eta egian oinarritua den elkarbizitzaren aldeko azaltzen da Jesus (Lk 6,41-42; Mt 5,37); azken hitza maitasunak izango duen sozial harremanen alde lan egiten du (Jn 13,35; 15,13), maitasuna izan dadin jende guztien jokabideak bateratuko dituen (Mt 22,36-40), eta denen gainetik «Jainkoaren zuzentasuna» izan dadin lortu nahi dena (Mt 6,33); diruaren (Mt 6,24) eta gauzak eskuratu behararren (Mt 6,21) morrontzapetik askatutako bizitzara dei egiten du; gizakien artean senidetasun handiagoa sortzen ahalegintzen da, errespetu gehiago izan dezaten (Mt 5,21-26), elkar hobeto adi dezaten (Mt 7,15) eta elkarri barkatzen jakin dezaten (Mt 18,21-22); gaitzetsi egiten du, bi puska egina dagoen gizartearen egoera eskizofrenikoa: jaten eta aserik barre egiten duten aberatsen ondoan, behartsuek eta goserik daudenek negarrez jarraitzen bait dute (Lk 6,20-26); gaitzetsi egiten du, legekeria eta gurtza hutsala besterik ez den bizitza erlijiosoa eta morala, eta zuzentasuna eta maitasuna ahazturik uzten dituen (Lk 11,39-42; Mt 23,23-24).

- ***Osasun osoa***

27. Jesusek eragiten duen osasuna ez da gorputzeko susperraldi hutsa. Gorputzeko arazo bat kentzea edota gaixotasun bat sendatzea baino gehiago da. Per-

tsonaren sendaketa osoa da lortu nahi duena. Gorputzeko osasuna, sendaketa oso eta sakonago baten barruan sartzen da. Gizaki osasuntsuagoa sortarazi nahi du, pertsonari dagokionez haztea eta bere helburua lortzea galarazten dion gaitz guztitik askatua egongo den gizakia sortzea.

Osasun bete nahi duelako, Jesusek gaixotasunak sendatzen ditu, baina pertsonak askatu ere askatzen ditu, gizatasuna galdu eta hondatzera eramaten dituen bekatutik (Mk 2,5). Jesusek biziberritzen duen osasunak eraiki egiten du berriro gizaki osoa; era berri batean bizitzera eta jokabide berri bat izatera eramaten du; egiaz bihotz-berriturik uzten du.

Horregatik, pertsona sustrai-sustraitik sendatzea da Jesusek nahi duena; gizakiarengan beti gorderik dagoen biziera duinago baten gogo esnarazten du eta «bihotz-berritzeraz» dei estua egiten, «barnetik, giza bihotzetik, ateratzen bait dira asmo txarrak» (Mk 7,21). Bihotz-berriturik Jainkoaganatzea, gure izaeraren sendatzeari hasiera ematea da, bizi berri baterako bidean jartzea, pertsonaren ahalmenak zabaldu eta heldutasun osasuntsura eramango dituen bidean sartzea.

- **Osasun askatzailea**

28. Jesusentzat, osasuna, askatasunaren parekoa da. Berarentzat, sendatzea, pertsonari bere ahalmenak garatzea galarazten dioten indar gaiztoetatik askatzea da, eta, beraz, bete-betean bere gorputzaren jabe eta bere bizitzaren nagusi arduratsuago izatera eramango duen guztia indartzea. Hori da San Markosen ebanjelioak harrigarriro azpimarratzen duena, Jesusek etsaiak botatzen ditueneko kontakizunetan (Mk 1,23-28; 5,1-20; 9,17-29).

Jesulentzat, bestalde, osasuna, gizakiaren barruko batasunarekin loturik dago. Sendatzean, Jesusek zatiketa guztitik askatzen du, barrua sakabanatua edukitzetik, «deabruaren mende» egotetik (izan ere, «*diábolos*» = bereizten duena da). Jesusek ematen duen osasuna, pertsona bere buruarekin eta biziarekin adiskidetzea da beti, egiazko bere bokaziorantz haztea, gorputzeko bere indarrak, sentipen eta gogo aberastasuna, eta espirituzko kemenak, bateratzea bere askatasun osoa lortze bidean aurrera egiteko.

Jesusek pertsonaren bizitzan jartzen duen ongi-izatea ez da nolana hikoia, baizik eta «*shalom*», hau da, barruko bakea, norberarekiko adiskidetasuna, erru, beldur edota larritik aske egotea, norberarenganako iritzi ona, etorkizunari begira konfidantza. Honela agurtzen ditu Jesusek, gaixorik edota bekatuaren zauriaz Berarengana hurbildu direnak: «Zure sinesmenak sendatu zaitu; zoaz bakean (Lk 7,50; 8,48). Jesusen ondoan, pertsonak osasuna berreskuratzen du, izaki guztien oinarri den Jainkoarekin adiskidetu, eta norberarekin, besteekin eta izadiarekin ere adiskidetu. Horregatik, esaten du parabolak, «*seme hondatzailea*», Aitarekin adiskidetu eta etxera itzuli zenean, «onik» aurkitu zuela (Lk 15,27).

- **Osasunarenganako ardura, baina ez sasi-jainko bihurtua**

29. Norbaiti gertatzen zaizkion ezbeharrak edo gaixotasunak ez dira beti, ardura ez izategatik, norberaren erruak. Aurrekoek uste zutenaren aurka, Jesu-

sentzat aberastasuna, aldarte ona eta osasuna ez dira derrigorrez Jainkoaren bedeinkapenaren seinale; ezta ezbeharrak eta gaixotasuna madarikapenaren seinale ere. Bizitza zoritxarrekoaren eta bekatuaren artean ez dago derrigorrezko loturarik (Jn 9,3). Baina gauzak oker ikustea izango litzateke, osasuna hondatzean norberak, bere bekatuaz eta jokabide okerraz, izan dezakeen erantzukizuna ahaztea. Hona Jesusek egiten duen oharpena: «Begira, sendatua zaude. Ez egin bekatu gehiago, okerragorik gerta ez dakizun» (Jn 5,14).

Jesusek, bestalde, gaixotasunaren aurrean jarrera arduratsua hartzera dei egiten digu, eta ez etsipen ilunean erortzera, halabeharrezko gaitza izanik ezer egiterik ez balego bezala: «Nahi al duzu sendatu?» (Jn 5,6). Hau da benetako sendaketarako lehen pausoa. Ez da nahikoa gaixoak sendaketa eskatzea. Beharrezkoa da berak barru-barrutik sendatu nahi izatea. Bizia erantzukizunez hartzearen ikuspegi honetatik irakurri behar dugu, sendatuak izan direnei berriro ibiltzera, edota beren buruen jabe izatera eta jende artera itzultzera egiten zaien eskaria: «Jaiki zaitetz, hartu zeure esku-ohea, eta zoaz etxera» (Mk 2,11; Jn 5,8).

Osasunaren ardura izateak ez du esan nahi sasi-jainko bihurtzea. Ez dugu Jesusengan ezertxo ere aurkitzen, osasuna gurtzea edota beste guztien gainetik jartzea adierazten duenik. Honi buruz ere esan daiteke, ez dela «gizakia osasunarentzat, osasuna gizakiarentzat baizik». Jesusentzat osasuna, benetan gizalgezko izatea ematen digun indarra da. Bizia zaindu beharra da eta osasuna landu beharra, baina ez neurririk gabe, eta gizakiaren kontra ihardunez edota azken etorkizuna arriskuan jarritz: «Ez izan beldurrik gorputza hiltzen dutenei, baina bizia ezin hil dezaketenei; izan beldur, inori izatekotan, gorputza eta bizia su-leizean gal ditzakeenari» (Mt 10,28).

Azken hitza, beraz, ez du ongi-izate fisikoak. «Gizakia ez da ogiz bakarrik bizi, Jaungoikoaren ahotik ateratzen den hitz guztitik baizik» (Mt 4,4). Beharrezkoa da bizia zaintzea, baina ez dugu ahaztu behar, «Jaungoikoaren erreinua eta Haren zuzentasuna bilatzea dela lehenengoa» (Mt 6,31-33). Bizitza eta osasun maila hobea lortze ahaleginean erantzun beharra dauka gizakiak, Jainkoaren eta besteen aurrean, bere biziarekin egiten duenaz. Horregatik, bada bizia eta osasuna galtzeko era osasuntsu eta arduratsu bat, betiko irabazten direlarik: Ebanjelioaren zerbitzura jarritz, alegia. Hara zer agintzen digun Jesusek: «Bere bizia Niregatik eta berri onarengatik galtzen duenak, salbatu egingo du» (Mk 8,35 eta paraleloak).

- ***Salbamenera zabalik dagoen bizia***

30. «Gizakiaren mundu honetako ibilbidearen hasieran bizitza fisikoa dago; baina bizi honek ez du inola ere agortzen pertsonaren balio guztia; bizi hau ez da, bestalde, betiera jomuga duen gizakiaren ondasunik gorenena»⁴. Horregatik, Jesus ez da, gaitzaren azterketa egin eta sendagaiak ematen aritzen den medikua. Jainkoaren betiko salbamera eskaintzean, eta horrek berekin dituen eskakizun eta agintzariak ibilbidean jartzean, pertsonen eta gizadiaren osasunari hazi-indarra ematen dion sendatzailea da Jesus. Oker handia izango litzateke,

⁴ *Jaiotzear dagoen giza biziaren errespetuari, eta ernalketaren duintasunari buruzko Irakaspena. Orain oraingoak diren zenbait arazori Erantzuna.* Fedearen Irakaspeneko Kongregazio Santua, 1987, otsailak 22.

salbamenaren osasunaren pareko jartzea; eta handiagoa oraindik –gure artean behin baino gehiagotan gertatzen denez–, erlijioa doilortzea sendaketaren zerbitzura erabiltzen delako, beste sendagai askoren arteko bat balitz bezala. Kristoren erospena maila desberdinekoa da, eta gorputzeko sendaketa baino maila sakonago batean gertatzen da; Kristoren erospena gizakiaren bizia erabat eta betiko salbatzea da, egiazko bere duintasunera itzuliz eta Jainkoaren hirutasunezko bizitzan lortzen duen bere betearen beterantz zabalduz.

Jesusek dakarren eta agintzen duen bizi hori betierekoa da, salbatua den bizia, orain guk ezagutzen dugun bizi ahul eta iheskor honek ezbehalako maila duena. Horregatik, Joan ebanjelariak aurkezten digun Jesus «biziaren ogia» da (6,35.48); «munduaren argia» (8,12); «bidea, egia eta bizia» (14,6); «piztuera eta bizia» (11,25). Berarengan sinesten duen gizon nahiz emakume oro «hilik ere, biziko da» (11,25).

Betiko bizi hau oraintxedanik bizi dezake fededunak; argi, indar eta itxaropen gisa bizi ere. «Sinesten duenak badu betiko bizia» (Jn 6,47; 3,36); Haren hitza entzuten duenak «badu betiko bizia... eta heriotzatik bizira igaro da» (Jn 5,24); Haren haragia jaten duenak eta Haren odola edaten, badu betiko bizia eta Hark piztuko du hura azken egunean (Jn 6,54). Baina oraingo gure bizi hau betiko salbamen horretara zabaldu eta norabide horretan jartzen duen oinarritzko esperientzia maitasuna da beti: «Guk honetatik dakigu heriotzatik bizira aldatu garelako: senideak maite ditugulako. Maitatzen ez duena heriotzan dago» (1 Jn 3,14).

Kristauak osasun ona duenean edota gaixotasuna nozitzean, bizia zaintzean edota biologi alorrean bere azkenera iristean, badaki gizakia ez dela «heriotzarako den biziduna», Jainkoaren bizi bete bizitzeko baizik. Beronek «txukatuko dizkie begietako malkoak. Ez da izango gehiago, ez heriotzarik, ez negarrik, ez garrasirik, ez atsekaberik. Lehengo mundua joana izango bait da» (Apk 21,4). Gure fedea bizi ez duzuenoi ere kristau agintzaria gogoratu nahi dizuegu: «Egarri denari hutsean emango dio Jainkoak ura, biziaren iturritik» (Apk 21,6).

Gurutziltzatua: oinaze-askatzailea

31. Ez da nahikoa, oinaze-minak sendagai bidez gozatzea. Ez da osasungarria, nahigabeak anestesia bidez ahaztea, nolana hiko iheskeria eta drogetara aldeginenez. Gaurko gizakiak ere beharrezko du, bizitzaren alderdi ilun eta penagarriak duintasunez eta era gizakoian onartzen ikastea. Gurutziltzatuarengan aurkitzen dugu kristauok argi, esanahi eta indar, oinazeari aurpegi emateko.

• Bizia maitatzea

Bizia maite duen eta bizirik dagoen Jainkoa gure artean dagoenaren azalpen bete da Jesus guretzat. Jainkoa gizaki batean gizon eginek agertzen duenean, bizia bete-betean daukan gizon batekin egiten dugu topo. Jesusen egin-tzak, Haren hitzak, parabola ahaztu-ezinak, eta ihardunbide osoak bizia era bete-tean, benetan eta zentzu onez bizi duen gizon baten irudia ematen digute; gezurrezko ameskeriaz goratu gabe, eta garrasakerian eta etsipenean erori gabe. Aita duen Jainkoarekin eta senide dituen gizakiekin elkarriketan hazten doan gi-

zona (Mk 1,35-39); lan egiten dakiena, eta bere beharra daukatenei eskainia bizi dena (Jn 5,17; 9,4), atsedeen hartzen eta berekin bizi direnei atsedeen ematen dakiena (Mk 6,31-32; Mt 11,28-29); pozik egoten eta biziagatik eskerrak ematen dakien gizona (Lk 10,21-22; Jn 11,41); negar egiten eta oinazetan daudenekin sufritzen dakiena (Jn 11,33-36; Lk 7,12-13); jaiak direnean jai egiten dakiena (Jn 2,1-11), eta bere Aitari dei egiteko isiltasunera ezkututzen dakiena (Mt 14,23; Lk 9,18; Mk 1,35).

Jesusek estimatzen du, eta zaintzen, bizia. Janariei eta jantziei baino balio handiagoa ematen dio biziari (Mt 6,25). Ez du nolana ere gaizki erabiltzen, ez doilortzen. Ongia, osasuna, barkamena, elkarrekiko bizitza zuzen eta baketsua, baketa, nahi du beretzat bezala besteentzat ere. Horregatik, Jesusengan ez dugu aurkitzen alferrikako eta behar ez den oinazerik, guk askotan izan ohi dugun bezala; horrelako oinazea geurekoikeriatik sortua izaten bait da, gauzak era desegokian maitatuz, geure barruko hustasunetik eta bizitzari buruz ditugun okerreko hainbat eratatik.

• *Oinazearen aurkako borroka*

32. Jesusek oinazea ez du maite, ez nolana ere bilatzen, sorkariaren oinazeak berezko balioa balu, eta Jainkoaren begietan bereziki atsegina balitz bezala. Ez du oinazerik nahi, ez beretzat ez besterentzat (Mk 14,34-36; Mt 26,38-39; Lk 22,41-42). Alderantziz, Jesusek darabilen ibilbidearen sustraizko jarrera, gizakiaren bizia hondatu eta giza maila galtzeko arriskuan jartzen duten gaizkiaren, sufrimenaren eta oinazearen aurka borroka egitea da.

Jesus ez da bere zorientasunean gordeta bizi, zorientsu ezin izan direnen sufrimenaz axolarik gabe. Beregan duen biziaren beteak ez dio galarazten bihozbera izaten besteen sufrimenaren aurrean. Bada helburu bat Haren jokabide guztiari argi eta arnas ematen dizkiona: «bizia salbatzea, eta galtzen ez uztea» (Mk 3,4). Horregatik, borroka egiten ikusten dugu, alde batetik, gizakion bizitzatik geurekoikeria, zuzengabekeria, solidaritzarik eza eta zuzenkontrakoa den, eta galeraz daitekeen, sufrimena sortzen duen guztiaren aurka; eta, bestetik, giza bizitzak berekin duen eta ezinbestekoa den sufrimena –gaixotasunak, zahartzaroak, errudun izateak, heriotzak dakarten sufrimena– ahal den neurrian arintzen eta gozaten.

• *Gurutzean josia izatea onartzen du*

33. Bekatuaren, gaizkiaren eta gizakia suntsi dezakeen guztiaren aurkako bere borrokan, Jesusek ez du atzera egiten; ezta bere sufrimenaren aurrean ere, hori oinazetan daudenenganako zerbitzuak eskatzen dionean, edota zuzengabekeriaren aurka borrokatzeagatik eta gaizki erabiliak direnen alde jartzeagatik besteek ematen dioten sufrimena denean. Kristoren gurutzea ez da Jesusek masokista moduan bilatzen duen oinazea; gaizkiaren aurka egiteagatik, hain zuzen, gurutzean josia izate hori era osasuntsu eta sortzailean onartzea da.

Jesusek bizia ez du estimatu eta zaindu bakarrik egiten; bere bizia eman ere ematen du, maitasunezko zerbitzurik gorena eginez, gizadiaren azkena erabateko heriotza eta suntsitzea izan ez dadin. «Nik neure bizia ematen dut... Ez dit inork kentzen. Neuk ematen dut neure gogoz. Nire esku dago, bizia ematea;

eta nire esku, berriro hartzea» (Jn 10,17-18). Jesusek bere bizia heriotzaraino ematen badu, ez da bizia arbuiatzen duelako; bene-benetan maite duelako baizik, eta guztiek bizia izatea nahi duelako, baita dohakabe eta zoritxarreko direnek ere; eta bizi hori erabatekoa, betea eta betikoa izatea nahi duelako.

Gizakiaren bizi betea maite duen «osasun gurutziltzatu» hau «erorbide eta zorakeria» gertatzen da gaurko gizartean indarrean dauden osasun ereduentzat. Baina gauzak kristau sinesmenetik begiratuta, hau da benetan gizalegezkoa izatea nahi den osasuna lortzeko irizpide nagusia, geurekoikeriak, solidaritzarik ezak edota zuzengabekeriak itxuragaldu eta ahuldutako osasuna nahi ez bada. Gehiago oraindik. «Gurutzean jositako bizitza» hau, fededunontzat, Jainkoak gizakiari dion maitasunaren agerpenik garbiena da; gizakiaren bizia maite duenaren eta zaintzen duenaren agerpena.

- ***Gurutzearen alderdi ona***

34. Sufrimenaren aurrean, Jesusen jarrera ez da asaldu eta etsipenean erortzea; ezta bere burua errukarri jotzea ere. Gaitzaren aurrean, ez da makurtzen, halabeharrezkoa balitz, eta zer eginik ez balego bezala; estoikoaren jarrera ez da oraindik kristau jarrerara iristen. Gaizkia goratu ere ez du goratzen; oinazea gauza txarra da beti ere, eta mehatxupean jartzen du gizakia. Jesusek onartu eta jasan egiten du, esperientzia horren barruan maitasuna era onean eta betean bizitzeko egokiera ikusten duelako, eta maitasuna delako gizaki guztien biziari bere esanahia eta betetasuna ematen dion balio nagusi eta erabatekoa.

Jesusek gurutzean bizi duen maitasuna, lehenen-lehenengo, bere Aita Jainkoarekin duen elkartasun osoa da. Oihu hau eginez hiltzen da Jesus: «Aita, zure eskuetan uzten dut neure espiritua!» (Lk 23,46). Gurutzean jositako dagoelarik, Aitari zabaltzen dio uste osoz bihotza; Aita ez bait da bere haserrea Semearen aurka hustutzen duen Jainkoa, Hura suntsitu nahian; alderantziz, badaki, orain ere Aita sufritzen dagoela isilik, bere ondoan; ez daukalako heriotzatik askatzerik gizakien askatasuna ezereztu eta haiei bere maitasun neurrigabea ukatu gabe; era berean, badaki, Aitak erakutsiko duela bere maitasun biziemailearen indar guztia, Jesus hilen artetik berpiztuz.

Gurutzean jositako dagoen Jesusen maitasuna, aldi berean, gurutzean jositako dauden guztiekiko maitasuna da, eta gizadi osoari egiten dion erospenezko zerbitzua. Jesusek maitasuna eta barkamena eskatzen ditu gizakientzat: «Aita, barka iezaezu, ez dakite eta zer ari diren» (Lk 23,34). Horrela, gurutzean iristen da bere betera biziaren aldeko zerbitzua, eta besteen alde bizia eman duen Jesusi bizia eman dio zerbitzu honek. Gurutzean agertzera ematen zaigu Jainkoaren maitasun neurrigabea, gizakien alde bere bizia emateko gai dena. Jesusen hitz hauek ere, hondorik gabea den Jainkoaren maitasun misteriora hurbiltzen gaituzte: «Ez da maitasun handiagorik, nork bere bizia bere adiskideengatik ematea baino» (Jn 15,13).

Kristoren piztuera, bizi berriaren sorburu

35. Askotan hitz egin izan dizuegu Kristoren piztueraz, geure piztueraren oinarria bait da salbameneko gertakari hau, eta betiko biziaren agintzaria. Gaur-

koan, Kristoren piztuera oraingo gure bizitzari indar berria ematen dion sorburua dela ikusten lagundu nahi dizuegu.

- ***Bizi berri batera berpiztea***

Heriotza biziaren suntsitzea izanik, ez da gizakia biologi alderditik galtze hutsa. Gure bizitzaren azkena iritsi aurretik, eguneroko gure bizitzan bere lanean ari da era askotara heriotza, guri bizia kentzen. Bekatuak heriotza ematen digu beti ordainetan (Erm 6,23), eta hil egiten du gugan maitasun sortzailea, hondatu gure giza duintasuna, ilundu egiaren argia gure kontzientzian, itzali gure barruko poza, pobretu egiten gaitu pertsona bezala. Poliki-poliki, geurekoikeria antzu batean uzten gaitu, besteenganako axolagabekeria ixten, eta besteengandik parasito antzean bizitzera makurtzen gaitu.

Lehenengo kristautentzat, Pazkoaren esperientzia, bizitza «piztuera prozesu» baten antzera bizitzera egiten zitzaien deia izan zen; giza maila galtzera eramaten gaituen bekatura hilez, eta bizi berri batera berpiztuz, «Kristo hilen artetik Aitaren ahalmenez piztua izan zen bezala, gu ere biziera berri batean ibil gaitezen» (Erm 6,4). Pazkoak dakarren dinamika honetan sartzeak esan nahi du, «Jainkoaren arabera egina den gizaki berriaz jaztea, egiazko zintotasunez eta santutasunez» (Ef 4,24). «Espiritu eta bizi» diren Haren hitzak entzutea, alegia (Jn 6,63), gugan Haren Espiritu biziemailea onartzea, eta hazte bidean aurrera egitea, «itxaropen guztien kontra» itxaropena biziberrituz (Erm 4,18), eta ugalkorra izango den maitasunerako eta zuzentasun sortzaile izango den solidaritzarako gure gaitasuna indartuz.

- ***Espiritu, Jaun eta biziemailea***

36. Kristautentzat, Aitagandik erregali hartzen dugun Berpiztuaren Espiritua da, gugan bizi berriaren eragin misteriozua sortzen duena. Espirituak eramaten gaitu, biziari buruzko egiaren muina ezagutu eta dastatzera, axaleko gauzetan geratu gabe (Jn 14,17.26). Berak askatzen gaitu barruko hustasun eta bakardade zailetik, eta bere bizileku egiten gaitu (1 Kor 6,19). Berak egiten du guretzat Kristo geure bizia izan dadin (Ga 2,20).

Espiritu izanik biziaren sorburu agortezina (Jn 7,37-39), Berak berritzen gaitu etengabe geure bekatutik eta eguneroko geure itxuratxartzetik. Laguntzera etortzen zaigu geure ahulerian (Erm 8,26), usteon pozgarriz betetzen du giza bihotza; izan ere, biziarazi egiten gaitu, baina ez beldurraren mende bizitzeko, baizik eta Jainkoari «Abba! Aita!» deitzeko gai egiten gaituen seme-alabatzako espirituz bizitzeko (Erm 8,15; Ga 4,6-7). Zabaldu egiten gaitu, harreman berriak eta sakonagoak izan ditzagun Jainkoarekin eta geure buruekin (Erm 8,26; 8,16), eta besteekin ere elkartasun estuagoa izan dezagun (2 Kor 13,13). Espiritu horren fruituek agerian jartzen dute gizalegezkoa den bizitzaren egiazko ontasuna: «maitasuna, poza, bakea, bihotz zabala, elkarren zerbitzua, bihotz bera, leialtasuna, samurtasuna, bere buruaren jabe izatea» (Ga 5,22-23).

- ***Biziaren aldeko borroka***

37. Jesus berpizten duen Jainkoa, gizakiek heriotza jartzen duten lekuan bizia jartzen duen Jainkoa da. Honela diote apostoluek beren predikuan: «Zuek hil

egin zenuten... baina Jaungoikoak piztu egin zuen» (Ap Eg 2,23-24). Gizakiek hil egiten dute, Jainkoak bizia sortzen du. Piztuerazlea eta «bizien Jainkoa» den Honengan sinesten duena, bizia era guztiz berrian eta maitasun osoz maitatzen hasten da. Gizakiaren oraingo bizia aitortu eta zaindu egiten du, eta betiko bizia itxaroten eta bilatzen, bizia orainaldiko gozamenera edota eraman beharretara murriztu nahi luketen okerreko irizpide guztien gainetik.

Gainera, Pazkotik sortzen den fedea biziaren alde jartzera eragiten dio sinestedunari, bizia zauritua, iraindua edota hondatua ikusten duenean. Fededunak heriotzaren aurka ari duen borroka ez da etika beharkizunetatik sortzen, piztuerazlea den, eta «bizia maite duen» Jainkoagan sinestetik baizik. Piztueran agertzeraren ematen zaigun Jainkoa Gurtziltzatuaren alde jartzen da, eta gurutzean josten ari direnen aurka; era berean, kristauak ere gurutzean josiak direnen alde jarri behar du, baita horrekin bera gurutzean josia izateko arriskuan jartzen bada ere.

- ***Betiko bizirako hiltzea***

38. Piztueran dugun fedea heriotzara usteonez hurbiltzera egiten digu dei kristauoi, heriotza ez delako biziaren behin betiko galera. Kristauaren heriotza «Kristorekin batera hiltzea» da, Jainkoaren betiko bizia eskuratzeko hil ere. Hau da gure itxaropena: «Jesus Jauna piztu duenak berak piztuko gaitu gu ere Jesusekin» (2 Kor 4,14). Jainkoa ez da, guk orain ezagutzen dugun bizi honi hasiera eman dion Kreatzailea bakarrik, «hilak bizten dituen Jainkoa» ere bada, «eta ez direnak izatera deitzen dituen» (Erm 4,17).

Horrelako piztueran itxaropen izateak, arimaren hilezkortasunean sineste baina askoz gehiago esan nahi du. Ez da giza arima hutsa bere osotasuna lortzen duena, baita gorputza ere. Gorputza barne dela, eta, beraz, beronen mundu ingurua, historia eta bizitza guztia barne dela, gizaki osoa da Jainkoagandik etorkizun berri eta bete hartzen duena. Kristauok, hain zuzen, ez dugu berez «beste» bizi batean sinesten, baizik eta Jainkoak Kristo berpiztuagan eraldatu eta bere betera eramango duen bizi honetan.

Kristau fedea ez da nahastu behar, bestalde, zenbaitek haragiztapen berri batean edo reenarnazioan duen sinesmenarekin; aintzakotzat hartzekoa da, sinesmen honek ingurugiro batzutan sortzen duen erakarpena. Sineskera honen arabera, gizakiek berriro gorputz hartu eta zenbait bizitzaldi igaro beharko litzukete, erabateko garbitasunera iritsi bitartean. Sineskera honetan, nor bakoitzak ez luke egiazko baliorik izango; Izakiaren azken gabeko sorkuntzak sorkuntzak izango luke garrantzia. Izaera zabaltzen joango litzateke, jaiotza eta heriotzen etengabeko jarraipen batean, aldaezina omen den Izaki Absolutuaren barruan. Buru bakoitza etengabeko joan-etorrian ibiliko litzateke, eta, reenarnazio edo haragiztapen berria hartuko luke behin eta berriro, Guztia denaren sorkuntzak beharturik bezala. Alderantziz, kristau ikuspuntutik, Jainkoak maitasunez sortzen du gizaki bakoitzaren bizia, eta izaki bakar eta berezi egiten du. Bakoitzaren bizia balioduna da, eta ez da inoiz oparitan eskainia izango jainkozko Guztiaren barruan galdurik geratzeko. Gizaki bakoitza onartua izango da Jainkoarekin elkarriketa pertsonalean sartzeko eta Hirutasunezko Maitasunaren Misterioaz gozatzeko bere alderdi guztietan eta jatorrizko bere nortasunik galdu gabe.

IV.- GIZAKIARI DAGOKION BIZIAREN KULTURA LORTZEKO

39. Konturatzen gara, oso korapilatsuak direla, biziari eta osasunari buruz gaur egun eztabaidan dauden arazo asko. Ez daukagu, bestalde, arazo konkretuen azterketa egiten hasterik. Baina, hori bai, kristau fedearen ikuspegitik, gogoeta bat eskaini nahi dizuegu, argibide eta laguntza izan dezazuen, gizakiari dagokion biziaren kultura gure artean indartzeko.

Biziaren alde egon

Gaur egun gizartean zabaldurik dauden irizpide, jarrera eta baldintzapen batzuek bizia era askotara erasotzeko giroa sortzen dutenez, guk esnarazi egin behar ditugu geuregan, giza biziaren alde jartzeko erantzukizuna eta erabakia. Giza bizia da, hain zuzen, «ondasun guztien oinarria, eta giza iharduera guztia- ren eta gizartean elkarrekin bizitzearen iturri eta beharrezko baldintza. Gizaki gehienentzat biziak balio sakratua du, eta ondasun hori ez dauka inork bere gogora erabiltzerik; kristauontzat, ordea, bizia, gainera, Jainkoaren dohaina da, eta zaindu egin behar dugu, eta fruitu eman erazi»⁵.

• *Bizia gure eskuko emaitza gisa hartzearen aurrean*

40. Bizia, askotan, gizakiaren ahalmen eta gaitasunaren emaitza bezala hartzen da, eta ez Kreatzailearen erregali eta dohain bezala. Haurra bera, batzutan, gurasoek landutako «emaitza» bezala hartzen da, eta beste gauzei bezalaxe balio azterketa egin behar zaiona. Arazoa honetan dago: bizia «egiteko» gero eta gaitasun handiagoa duen gaurko gizakiak, gero eta gaitasun handiagoa duela bizi hori «desegiteko» ere. Gainera, emaitzaren balioari bakarrik begiratzen dion pentsakera honek, oso erraz sartzen du halako bereizkeria bat, geure gustukoak ez diren, edota aspergarri zaizkigun eta «etekinik ematen ez duten» bizien kontra: jaio ez diren haurren kontra, alegia, zaharren, gorputzez edota buruz eskas direnen, eta bizitza akasdunen kontra.

Gaurko gizakiak ez al du bere jarrera hartu behar, ekonomi eta industri munduaren ondorio den pentsakera honen kontra? Berreskuratu egin behar bait du, bizia Jainkoaren dohaina dela, pertsonaren ardura eta maitasuna merezi duena, era bakar eta berezian garatzea dagokiona, eta bizitza honez gainetik dagoen osotasunera deitua dagoena.

Eduki arduratsuagoa eta benetan gizalegezkoa emango lioke horrek, ahularen, jaio ez denaren, zahar edota hiltzorian dagoenaren, bizitzari buruzko gure jarrerari. Gogo onez hartuko luke gizakiak, bera gehiago den, eta Berarengandik bizia dohainik hartua duen Norbaitekin duen lotura hautsi-ezina. Giza biziaren –giza bizi ororen– aldeko jarrera etikaren oinarritzko eskakizuna da; eta printzipio hori zapaltzen bada, gizartean elkarrekin gizalegez bizitzearen sustrai nagusietako bat suntsitzen da, aldi berean.

⁵ Eutanasiari buruzko Adierazpena. Fedearen Irakaspenerako Kongregazio Santua, 1980, ekainak 27.

- ***Dogmatismo itsuen aurka***

41. Beharrezkoak ditu gizakiak sinesmen sendoak bizitzan aurrera egiteko; baina horrelako sinesmenak dogmatismo itsu, eramanpenik gabeko eta kanporatzaile bihurtzen direnean, arerioa baztertu eta kanpora uzteko joera gogortzen joaten da, neurri batean. Edozein dogmatismotan bada beti nolabaiteko mehatxua biziarentzat, edozein izanik ere dogmatismo era: politika alorreko eraman-ezina, arrazakeria, nahiz behartsuarenganako sentiberatasun eza eta norkeria.

Gure herriak bere jarrera osasuntsua izan behar du, gero eta sendoago eta gehiago, giza odola isurtzera eramaten duen politik nahiz ideologiko alorreko edozein dogmatismoren aurka. Ez daiteke inoiz gizakiari dagokion bizirik eraiki, heriotza oinarri harturik. ETAk utzi egin behar dio hiltzeari. Indarkeria eta bortxakeriara eragiten dutenek, pertsona jakinei bizia kentzeko aginduak ematen dituztenek, horretarako beharrezkoa den informazioa edota laguntza ematen dutenek, jakin behar dute, gizakiaren aurka ari direla borrokan. Herriak ez du horien bidea onartzen bere etorkizuna eraikitzeko. ETari hilketak eskatzen dizkiotenek, hilketa horiek onartzen eta zuritzen dituztenek, edota begi onez ikusten dituztenek, beren buruei galdetu behar diete, zer geratzen zaien beren kontzientzian gizakiarenganako egiazko maitasunetik.

Bestalde, gure babesa eta eragina eskaini nahi diegu, bakarka nahiz bakearen alde sortutako taldeetan, hilketa bakoitzaren aurrean beren jarrera erakusten duten guztiei, horrela gizartearen kontzientzia esnarazten dutelako biziaren alde eta gizakia hondatzearen aurka.

- ***Dena egitasmo barruan sartu nahiaren aurka***

42. Plangintza, arduraz egiten denean, aurrerapen burutsuaren seinale da, eta bizitza gizalegezkoa egiteko bide. Baina halabeharrez eta derrigorrez egindako egitasmo bihurtzen denean, eta helburu ekonomiko eta materialei bakarrik begiratzen dienean, mehatxu bihur daiteke biziarentzat. «Haur plangintza» bera arrazoiaren garaipena da, dudarik gabe, izadiaren halabeharra gaindituz; baina gaizki erabilia izan daiteke, berekoikeria antzu baten zerbitzura; edota kristau fedeak biziari buruz eskaintzen digun ikuspegi baikorrarekin zerikusi gutxi duen beldurra adieraz dezake.

Gaurko gizakiak bere jarrera egokia hartu behar du, industri alorretik datorren, dena egitasmo barruan sartu nahiaren aurka, gero eta osagai gehiago eskatzen bait du, ongi-izateari begiratzen dion gure kultura bereziaren garapenaren zerbitzura. Buru argiagoa izan behar dugu, osasunari eta jaiotzei buruzko zenbait planteamendu politikori buruz, ikusirik, bereziki arriskutsuak izan daitezkeela, oraindik hasieran dauden edota akasdunak diren biziarentzat. Gizalegezkoa al da, gaur egungo gizakiak hain berea duen jarrera suztatzen jarraitzea, ikusirik, biziak sortzen duen harriduraren aurrean ez dakiela, egitasmoaz kanpoko emaitzak baztertzea beste jarrerarik hartzen? Biziaren dohainaren aurrean, ez al dugu jarrera irekiago eta bihotz zabalagoa izan behar?

Maila oneko biziaren etika

43. Maila oneko biziaren irizpidea, Lehenengo Munduko kulturaren emaitza berezia da, eta, neurri handi batean, gizarte industrialduen garapen material eta ekonomikoaren baitan dago, irizpide hori finkatzea. Baina, ez al da beharrezko, irizpide hori bereiztea eta garbitzea, egiaz gizalegezkoa izango den biziaren zerbitzura egon dadin?

- ***Biziaren giza edukia***

Gaurko gizartean ulertzen denez, maila oneko biziaren edukia, askotan, ekonomi eta kontsumo neurriak erabiliz, eta industri ihardueran egin ohi direnen antzeko azterketa bide berdinez neurtzen eta balioztatzen den ongi-izate jakin batera mugatzen da. Egiazko maila oneko bizitzak, ordea, pertsonaren «alderdi onak» garatu beharko lituzke: nor berezia izatea, alegia, beste guztietatik desberdina, maitasun eta askatasun arduratsua izateko gai dena, eta gero eta gehiago gizartean besteekin batera bizitzera eta elkarrizketa egitera deitua dagoena.

Gauzak oker hartzea da, maila oneko bizia «nazioko errentaren indizearekin», industri garapenarekin edota kontsumo hazkundearekin berdintzea. Ez da ona, ongi-izate materiala gehitzen duen guztia, ezta txarra ere horren kontra. Biziaren garapen materialak, pertsona bere osoan hartuta eta alderdi guztietatik begiratuta garatzearen zerbitzura egon behar du; ez du, beraz, mugatu behar ekonomi alderdi gehiago lortzera, edota bigarren mailako beharrak betetzera, gizakiak bere bokazioa ondo betetzeko eta helburua lortzeko beharrezkoak direnak ahazturik edo bazterrera utzirik; esate baterako, espirtu bizitzaz arduratzea, kontzientzia morala garatzea, edota solidaritzan hazten joatea. Horrela gogoratu digu Joan Paulo II.ak: Sozial aurrerapenak «gizakiaren garapen eta ongiaren osotasun betea izan behar du helburu; honek, ordea, ez dio iharduera material, ekonomiko edota sozialari bakarrik begiratzen, gizakiak bere espirtu bizitza osoan ere aurrera egiteari baizik, hori gabe gizon-emakumeak erdizka eta beren helburu betea lortu gabe geratuko bait lirateke beti»⁶.

- ***Maila oneko bizia, norentzat?***

44. Hona hemen galdera bat, entzungor egin eta bazterrera uzterik ez dagoena; izan ere, maila onekoa omen den biziaren atzean berekoikeria kulturala gorde daiteke, eta horrelako jokabideak, egoera zailak sortzen dituen, edota nekeak eta norberaren eskaintza egitera behartzen duten, bizi «aspergarriak» bazterrera uztera edo arbuiatzera eramaten gaitu. Ez dugu ahaztu behar, bestalde, Lehenengo Munduaren bizi mailak, neurri handi batean, Hirugarren Munduko garapen ezaren, behar gorriaren eta gosearen bizkar egiten duela aurrera.

Galdera egin behar diogu geure buruei, koldarkeriaz gauzak nahastu gabe: Maila oneko bizia denentzat, ala niretzat eta niretarrentzat bakarrik? Maila oneko bizia lanik gabe daudenentzat ere, ala ongi-izate orokorra sasoi betean eta egoera onean daudenentzat bakarrik? Maila oneko bizia zaharrarentzat ere, ala erosotasuna zaharretaz ardura izan behar luketenentzat? Maila oneko bizia

⁶ Joan Paulo II.ak Mendozan egindako Homilia, 1987, apirilak 7.

oraindik jaio ez denarentzat ere, ala ongi-izatea haur hori bazterrera uzten duten gurasoentzat? Maila oneko bizi europearentzat bakarrik, ala gizon-emakume guztientzat? Giza maila hobetzeko izango litzateke, pertsoneri eta familiei nekeak beren gain hartzen lagunduko liekeen kultura indartzea, ahulenen ardura izan dezaten; behartsuenen zerbitzura egongo den sozial aszetika eskainiko lukeen kultura indartzea, alegia, eta garatu gabe dauden herriekiko solidaritza suztatuko lukeena.

Gizakoia izango den osasuna

45. Osasunerako Mundu-Erakundeak (OME) 1946. urtean adierazi zuenez, «gorputzeko, adimeneko eta sozial ongi-izate egoera guztiz bikainari esaten zaio osasuna, eta ez gaixotasunik ez izate hutsari»; geroztik, osasunaren adiera hau eztabaidatua eta aberastua izan da ikuspegi askotatik. Egin ditzagun oinarritzko gogoeta batzuk.

• *Norberaren erantzukizuna*

Mediku jakintzaren eta osasun zerbitzuen garapenak ez gaitu geure erantzukizuna ahaztera eraman behar. Osasunak ez du soil-soilik botikako sendagaien eta medikuaren ardurapean geratu behar. Gutako bakoitza gara geure osasunaren lehenengo arduradun eta zaintzaile, bizitzako geure ohituren bidez eta geure bizitzari jartzen diogun helburuaz.

Bizitza osasuntsua eramateak, gorputzari kalterik ez egitea eta espiritua gaizki ez erabiltzea esan nahi du. Era egokian janaritzen ikastea eskatzen du, bizitza eratsua eta neurritzkoa eramatea, lana eta atsedena neurri osasuntsuan lotzea, sexu bizitza osasungarria egitea, gorputzeko ariketak ez uztea, izadiarekiko harremanak ez galtzea. Baina, horrekin batera, erresuminak utzi, eta us-teon izatea ere eskatzen du; eramanezinak utzi, eta eramane oneko izatea; barkadatea utzi, eta harremanetan sartzea, istiluak utzi, eta bakezkoak egitea; asperraldia utzi, eta maitasun sortzailea izatea.

Gorputzak berak bidaltzen dizkigun mezuak entzuten ikasi behar dugu. Gaizki gaudenaren seinale diren estresak, eten-beharrak, lo egin-ezinek, edota jateko gogorik ezak, gure bizitzan zerbait gaizki doala adierazten digute, eta gure bizitzako alderdiren bati buruz arreta gehiago izatera egiten zaigun deia dira. Gaixotasun batzutan ere ez legoke gaizki geure buruei galdetzea, zergatik gaixotu garen. Batzutan, geure bizia arreta gehiagoz zaintzera egiten zaigu dei; bes-tetan, berriz, geure biziera aldatu eta erabat berriztatu beharra daukagula adierazten zaigu larriki.

• *Osasuna, moral eginkizun*

46. Giza eginkizun positibo gisa harturik, osasuna gaixotasunik ez izatea baino gehiago da. Pertsonarengan egiazko osasuna lortzeko, ez da nahikoa ondoez fisikoa nahiz psikikoak kentzea. Giza osasuna, pertsona bere osoan, aske eta arduratsu haztera eramango duen bizi maila edo era dela esan daiteke. Ikuspegi honetatik, gorputzeko eta adimeneko bere indarrak, eta psikologi eta espirituzko

bere egoera bere askatasunaren hazkuntza lortzeko gai direnean, orduan dauka pertsonak osasun ona.

Horregatik, esan izan da, badirela jarrera osasuntsuak gaixotasunaren erdian; baita gaixo dagoenaren jarrerak ere, gaixorik ez egon arren. Pertsona inolako helbururik eta giza egitasmorik gabe bizi denean, bere izaerari esanahirik eman gabe, alegia, eta antzuki bere buruaz bakarrik arduraturik, nahiz eta medikuak gaixotasunik aurkitu ez, horrelakoaren bizitza ez da osasuntsua giza ikuspegirako. Alderantziz, senda-ezina den gaixotasun baten mende dagoen gizakiak bere hondamena askatasunez onartzen dakienean, eta, mediku ikuspegi-tik egoera ahulean egonik ere, egiazko balioetara zabalik egoteko gai denean, horrelako pertsonak era osasuntsuan bizi duela esango genuke bere gaixotasuna.

Beraz, gaixotasunaren aurka teknika alorrean egindako borrokak ez du, besterik gabe, gizaki sana sortzen. Beharrezkoak dira norberaren ahalegina, ekintza hezitzailea eta moral sentiberatasuna, pertsonak ikas dezan, bere garapen oso eta egokia galarazten edota eragozten dioten morrontza eta menpetasun guztietatik askatzen joango den eran bizitzen. Iruditzen zaigu beharrezkoa dela, gaurko gizakiak osasunean ongi-izate fisiko eta psikiko hutsa ez ikustea, moral eginkizuna baizik; eta horrek, funtsean, zera esan nahi du: gero eta gehiago bere gorputzaren eta adimenaren jabe izatea, pertsonaren askatasunaren eta maitasunerako gai izatearen zerbitzura jar ditzan bere gorputz-adimenak.

• ***Pertsonari dagokionez bizitzeko indarra***

47. Osasuna «gutziz bikaina den ongi-izatea» bada, utopia inuzentea besterik ez da oinazerik gabeko bizitzaren ametsa, edota nahigaberik gabeko zorionaren eta istilurik gabeko gizartearen ametsa. Sendagintzak, psikoterapiak edota terapia sozialak asko aurreratzen dutelarik ere, gutziz bikaina izango den osasuna lortu-ezinezko helburua izango da beti.

Gainera, goreneko osasun helburu hori, bizitzaren aurrean osasuntsua ez den jarrera sartzen ari da pertsona batzuegan. Osasuna goratu eta sasi-jainko bihurtzen denean, edozein oinaze edota gaixotasunek usteona kentzen du eta norberarenganako maitasuna hondatzen. Sarritan ikusten dugu, gure egunotan osasunari egiten zaion gurtzak, gaingitu nahi litzatekeen huraxe bera sortzen duela, hain zuzen: gaixotzearen beldurra.

Horregatik, oso ona eta osasungarria iruditzen zaigu, osasunaren aldeko eta, edozein egoeratan giza bizitza aurrera eramateko, indar izango den osasunaren eragile azaltzen direnen jarrera. Gai egiten bait gaitu gizalegez bizitzeko, gorputzez ondo gaudenean eta oinaze-aldian, gazte-aldiko sasoiari eta zahartzaroko hondamendian, bizitzaren gozamenen eta heriotza itzaropenez onartze-koan. Gizakiaren gure ikuspegi oso honetatik baieztatu nahi dugu, «gizaki izateak» mediku alorreko «osasun izatearen» gaineratik egon behar duela beti. Bizi, ez dugu geure osasuna zaintzeko bizi behar; alderantziz, osasuna zaindu behar dugu gizalegez bizitzeko.

Gorputza osasuntsu zaintzea

48. Oker handia izango litzateke, gizakiaren osasun osoaz hitz egin bai, eta gorputza zaintzeaz ez arduratzea. Gehiago oraindik, hori kristau fedearen ize-nean egitea, askotan gertatu izan daitekeenez.

- ***Iritzi oneko ikuspegia gorputzari buruz***

Gorputza ez da, bere lana ondo egin dezan kontu egin behar diogun makina hutsa; gure izaeraren oinarritzko alderdia da, eta arduraz zaindu behar dugu, geure giza esperientziaren erdigunea delako. Gure sentipen, sentiera, adimen prozesu, espiritu jarrera edota erlijiozko esperientziek geure gorputzean dituzte beren zainak eta abiapuntua. Beraz, egia ez da «gorputz bat daukagula», «gorputz garela» baizik, giza biziaren arnasa duen gorputza. Joan Paulo II.aren hitzak erabiliz esan behar dugu, «gorputza ez dela edozer gauza. Norbait da; pertsonaren adierazpena, hain zuzen»⁷.

Gure gorputza, besteekin topo egiteko eta harremanak izateko leku-gunea da. Gorputzari esker eta gorputzaren bidez adierazten dugu eta harremanak ditugu besteekin. Hitzak, keinuak, begiradak, aurpegiak, eskuak, irribarreak, mu-suak... gorputz osoak, alegia, bide ematen digu, besteei gu garena eta bizi duguna adierazteko, gure asmoak egintzara eramanez eta harremanak izateko. Gure gorputza, aldi berean, Jainkoarekin topo egiteko leku-gunea da. Gorputzari esker eta gorputzaren bidez jartzen da gizakia zabalik Jainkoaren esanera ibiltzeko, edota Jainkoari dei egin, Hura goratu eta Berari eskerrak emateko. Gure gorputza zaintzeak, geure izaera bere sustraietan zaintzea esan nahi du.

- ***Gorputzaren gain nagusi izatea***

49. Ez dugu ahaztu behar, ordea, gorputza askatasun iturri izan daitekeela, edota morrontzaren kate. Laguntza izan daiteke gorputza, nagusi izanez bizi gaituzten, edota morrontzara eramaten gaituen jauntxoa izan daiteke. Bide ematen digu gorputzak besteekin harremanak izateko, baina baita geure barruan itxita geratzeko ere. Gorputzari esker geure egia adieraz dezakegu, baina baita gorde ere. Gorputzean bizi dugu Jainkoarenganako menpekotasuna, baina baita zaputza eta bihurkeria ere. Horregatik, ez da nahikoa «gorputzaz arduratzea». Beharrezkoa da aszesia ere, pertsona nagusi izan dadin gorputzaren gain.

Bestalde, gizakia ez da gorputz hutsa. Badira gizakiarengan arretaz begiratu beharrekoak diren beste alderdiak. Pertsonak zaintzen ez baditu bere sentipen eta maitasunezko aberastasunak, adimenez eta buruz bareturik egotea, espiritu bizitza eta Jainkoagana zabalik bizitzea, orduan gorputzarekin soil-soilik bat egin geratuko da, eta gaixotasuna, hondamena, zahartzaroa edota ezbeharrak iristen denean lur jota geratuko da. Salatu ere, salatu egin nahi dugu, gorputz gaztea, indarrez gainezka, eder galanta eta sexya azaltzen duen, eta azkenean giza gorputzaren gezurrezko itxura besterik gertatzen ez den, gorputzaren goralpena. Ez da hori fededunari dagokion ikuspegia. Gorputzaren egiazko ardura ona eta osasuntsua pertsonaren garapen osoaren barruan sartzen da.

⁷ Frantziako gazteei eskainitako Mezua, 1980, ekainak 1.

Jarrera osasuntsua oinazearen aurrean

50. Askotan orokorki hitz egin ohi da oinazeari buruz, izan ohi diren era askotako oinazeen artean bereizketarik egin gabe, oinaze horien sustraiak aztertu gabe, eta berorien aurrean hartu behar dugun jarrera argitu gabe. Beharrezkoa da, beraz, jarrera osasuntsua lantzea, eta are gehiago gurutzaren okerreko aurkezpenak osasungarriak ez diren jarrerak eragin izan dituenen.

• *Alferrikako oinazeak baztertzea*

Adituen ustez, askotan, pertsonak izan ohi dituen oinazeetako asko, nork bere bekatuaz eta bizimodu okerraz sortutako oinazeak izan ohi dira. Horrelako oinazea ez da geure gain hartu behar dugun «gurutzeta»; hori gaitz bat besterik ez da, Kristok ezagutu ez zuen gaitza; eta, hain zuzen, Jesusen urratsei leialkiago jarraitu nahi diegulako, onartu behar ez dugun gaitza. Alferrikakoa den horrelako oinazea baztertzea beti da osasungarria, bai pertsonarentzat bai beronen ingurukoentzat; izan ere, erreminduek erremina sortzen dute, beren buruekin istilupean bizi direnek istilua sortzen dute, eta atsekabeturik bizi direnek atsekabea.

Alferrikako oinazearen aurrean jarrera osasungarria hartzeak, beronen sustraiak aurkitu eta kentzen ahaleginak egitea esan nahi du. «Mortifikazio» esan ohi dugun ukapenak hori eskatzen du, hain zuzen: bekatua gudan «hiltzea», era osasungarrian bizitzea galarazten digulako. Bizibide osasungarrian sartuko lirateke pertsona asko, baldin eta beren bizitzak alferrikako kezka eta larritasunez betetzen dituen berekoikeriatik aterako balira, eta bihotz zabalagoz besteei emanik biziko balira; hainbeste amets zororen hutsegitea ekarri ohi duen diru eta beste gauzenganako zaletasun gutxiagoz biziko balira, eta bizitza xume eta neurritsuagoa eramaten asmatuko balute; bekaizkeriaren saretan eroriko ez balira eta beren bizitza izatearekin pozik egongo balira, besteen bizitza «zeharka begira» egon gabe.

• *Oinazearen aurka borrokatzeagatik jasan beharra*

51. Benetako gizaki izan nahi duenak ezin ditzake ahaztu oinazetan daudenak. Alderantziz, era osasungarrian bideratutako bizitzak ahaleginak egingo ditu beti gizakien bizitzetatik sufrimena kentzen. Pertsona osasuntsuak badauki, ez daukala zoriontsu izaterik besteak kontutan izan gabe eta besteen aurka. Zoriona eskuratzeko gizalegezko era, zoriona guztientzat eskuratu nahi izatea da.

Hainbat pertsonarengan nahigabea eta oinazea sortzen dituzten zuzengabekeriaren eta gehiegikeriaren aurkako borroka honen ondorioz, eta gaitzak, zahartzaroak, ezbeharrak edota heriotzak halabeharrez sortzen dituztenak arindu eta gozatzeko ahaleginaren ondorioz, beti izango da sufrimen bat geuregan onartu beharra daukaguna, gaizkia menperatzeko eginahalak hori eskatzen duelako. Guztion esku legoke hainbat sufrimen, nahigabe eta bihozmin geuregandik aldentzea. Askari litzateke, horretarako, besteen arsekabeen aurrean begiak ixtea eta geure mundu barruan geurekoikeria lotsagarrian sarturik bizitzea. Baina izugarritzako saria izango litzateke horretarako ordainduko genukeena: maitatzeari uko egitea, alegia, eta gizalegean atzera egitea.

- ***Halabeharrez datorrigun sufrimena onartzea***

52. Lehentxeago edo geroxeago, denok egiten dugu geure bizitzan topo halabeharrezko sufrimenarekin: gaitza dela eta, zahartzaroa, ezbeharra, edota maite dugun norbait galtzea dela medio. Gure bizitzaren alderdi ilun eta mingarria da hori; eta sorkariak berekin dituen mugapenak adierazten ditu, eta izan ere, sorkari izatearen ondorio dira. Horrelako atsekabea atzeratu genezake, baita arindu ere, baina ez daukagu kentzerik. Eta zer egin derrigorrezkoa den sufrimenaren aurrean?

Askotan sortzen zaigun jarrera, barruko haserrea da, onartu nahi eza; hori ulergarria da, baina, gehienetan, biziagotu egiten du atsekabea; eta sumindu eta etsipenera eraman dezake pertsona. Beste jarrera bat larritasuna da; etorkizuna da, batez ere, estuasuna sortzen duena; bide horretatik, kemenik gabe geratzen da pertsona bere gaitzari aurpegi emateko. Batzuen batzuk bakardadean erortzen dira, eta beren zoritxarrari bakarrik begiratzen diote; ez dute inoren laguntzarik onartzen; horrela, beren buruak hondatzen dituzte, eta ezereztuak geratzen dira gero eta gehiago. Beste batzuk etsipenezko jarrera hartzen dute; beren buruez kupiturik bizi dira, gauza guztietan eta beti gaizki erabiliak sentitzen direlako; pertsonak ez dauka horrela hazi eta aurrera egiterik.

Sufrimena beti gauza txarra da. Baina berez esperientzia txarra izan arren, neure esku dago dago hor alderdi ona bizitzea. Sufrimenak egokiera eskaintzen dit. Neu naiz erabakitzen dudana, zer izango naizen eta zer biziko dudana, esperientzia mingarri horren barruan. Atsekabea neure barruan onartu gabe bizi dudanean, zehaztu eta bereizi gabeko gertaera hutsean geratzen da; ez dit lagunduko neure bizitza eraikitzen; alderantziz, hondatu egin dezake nire bizia.

Kristauak Gurutziltzatuarekin bat eginik eta elkaturik bizi du sufrimena. Orduan ere sufrimena gauza txarra da; baina horregatik, hain zuzen, Aitari diogun leialtasun osoa, eta gizakiei diegun solidaritza eta maitasun praktikoa, egiaz eta benetan bizi eta adierazteko egokiera ematen digun esperientzia gertatzen da. Sufrimenean ere, kristauak Jainkoa maitatzen eta Harengan usteon izaten jarraitzen du; baina ez sufriarazteko neke-minak bidaltzen dizkion Jainkoarengan; bizia lortzeko hobe izango dena, eta horretarako bide egokiagoa izango dena, bilatzen, orduan ere beraren ondoan dagoen Jainkoarengan baizik. Gainera, oinazeen bidez, kristaua sufritzen dutenekin elkaturik bizi da; eta ez teoria hutsez, edota hitz kontsolagarriak esanez bakarrik; egiaz baizik, solidaritza eta sufrimen hartan bat eginez.

Orduan, sufrimena eroslea bihurtzen da, hil egiten duen bekatuaren kontrako jarrerarik garbiena bizi dezaketelako gizon-emakumeek beren barauan. Bekatua, norkeriaz zoriona bilatu nahia den bezala, Jainkoarekin eta beste gizakiekin haustura eginez, gurutzea, hain justu, horren kontrako jokabidea da: Jainkoarekin eta senideekin elkartasunean bizitzea, alegia, zorionik ezean, hain zuzen. Horregatik, kristauak ez du bere gurutzea suntsitua izan denaren antzera bizi, azken itxaropenaren jabe denaren antzera baizik, gurutzean josia izan zen, eta Aitaren Maitasun biziemaileak berpiztu zuen, Kristorengan bait du itxaropen horrek bere oinarria.

Gaixotasunaren giza esperientzia

53. Gaixotasunari, gehienetan, sendagile eta sendakuntza aldetik bakarrik begiratu ohi diogu. Gaixoaldia ezin ote da izan, heldutasun handiagora eraman gaitzakeen giza esperientzia? Nola ikasi hori egiten?

- ***Ziurtasunaren etena***

Gaixotasunak, eritasunak, eten egin ohi ditu gure asmo eta ziurtasunak. Bizitzen ohituak gaudenez, normalena osasuntsu izatea dela iruditzen zaigu. Ahitu-ezinezko kemenaren jabe garela uste dugunean, bat-batean, gaixotasuna etorri eta gelditu beharrean gertatzen gara, geure lana utzi beharrean, eritetxe-
ren batera joan eta oheratu beharrean.

Gaixotasuna, orduan, zentzugabea, arrazoigabea eta zuzengabea iruditzen zaigu. Egia esan, geure izate ahul eta erorkorra agerian jartzen da horrela. Geure izate hori bere horretan ikusteko eta geure ahultasuna apalik onartzeko egokiera izan daiteke gaixoaldia. Eta sinestedunontzat, gainera, gure izatearen Egile eta Aita denari usteonez dei egiteko egokiera.

- ***Galderak egiteko unea***

54. Gaixo, eri, dagoenaren baitan era guztietako galderak sortzen dira: Nola etorri ote zait? Zergatik niri? Asmatuko ote dute ni sendatzen? Zertan geldituko ote dira nire lanak, nire etxeak, nire asmoak? Pertsona astintzen dute galdera hauek, ez bait dira bere arazoei buruzko galderak, bere nor izateaz eta bizitzarako duen asmoaz baizik. Eta sakonago ere bihur daitezke galdera horiek: Hau izan al da guztia? Eta orain, hil egin behar al dut? Zertarako bizi izan naiz? Zer gertatuko ote zait heriotza orduan?

Gaixoaldia gogoetarako une egokia izan daiteke, nor bere baitara, bere barnera, sartzen laguntzen bait du. Gaixo dagoenari gogoratu, birpiztu, egiten zaizkio bere bizitzako oroitzapen eta hunkialdiak, arrakastak eta hutsegiteak, akatsak eta bekatuak. Eritasuna larria denean, bere bizitzaren bilduma egiten hasten da gai beharra duen ordu luzeetan, gaixoak bere burua eta bere historia txikia aurkitzen du. Etsirik, lur jorik, deusezturik gelditzeko arriskua du; baina, beharbada, bere izate eta bizitza beste era gizakoiago batean hartzeko aukera ere izan dezake. Sinestedunak izan dezake, gaixoaldian, bere kristau bizitza aztertzeko aukera, Jainkoarengana benetan bihurtzeko eta beraren salbamen-asmoa onartzeko aukera, seme-alabena bezalako usteona Berarengan ipiniz.

- ***Muina zein den agertu***

55. Eritasuna larria denean, bizitzaren muina zein den galdetzera eramaten gaitu. Gure irudipen hutsalak desegin eta gure jarrera askoren arina agertzen da. Argiago ikusten dugu, zer den inola ere galdu nahi ez genukeena: geure ingurukoen maitasuna, bakea, bizia, itxaropena. Egiaz garrantzitsu eta erabakior dena ikusten laguntzen digu gaixoaldiak.

Eritasuna larria denean, galdera nagusien aurrean gertatzen da gaixoa. Berak beste inork, ez beste ezerk, eman ez dezakeen zerbait eskatzen zaio gaixo

dagoenari. Bizitzako unerik larrienetan inoiz baino bakarrago gertatu ohi gara. Heriotza hurbiltzean, gaixoak egin behar du aukera. Heriotza ez du halakoren batean gerta lekiokkeen zerbait, baizik eta gainera datorkion benetako ordua. Eta horrek gaixoari bere izatearen zentzua eta norabidea erabaki dezan eskatzen dio. Kristauarentzat egiaz sinestedun izateko unea da, senda-ezina izateari baiezta emateko, itxaropena Kristo piztuarengan ipiniz heriotza onartzeko unea.

Bizitzaren burutzea

56. Batzuek beldur handiagoa diote zahartzaroari, heriotzari baino. Beste batzuek, berriz, bizitzaren azken egunetara hurbiltzearen ezaugarri delako diote beldurra zahartzaroari. Nola bizi geure bizitzaren burutzea era gizakoiagoan?

- ***Ezina onartu beharra***

Gure bizitza mugatua da, eta alferrik da hori ukatzea. Urteen joanean giza gorputzak makaldu eta indarra galtzen du. Entzumena eta ikusmena murriztu egiten dira, indarrak ahultzen, oroimena eta gainerako gaitasunak galtzen, osasuna pattaltzen. Pertsona bere buruaz baliatu ezinik gelditzen da, gero eta bes-teen behar handiagoan.

Egia da adineko pertsona bere etxekoen beharrean dagoela, lagun behar-reen, jubilaziorako baldintzen mende, bere osasunaren gorabeheran. Baina, neurri handian, bere esku izan dezake bere egoera: zahartzaroak dakartzkion ezinak onartzen ikasiz. Bizitza sakon aztertze-ko une egokia izan daiteke zahartzaroa, garai bateko lana eta sasoi ona ezezik, kontenplazioa eta oraingo egoera onartzen jakiteko; indarra eta izen handia ezezik, ahultasuna eta apaltasuna baliotzatze-ko. Zeinen garrantzitsu izan daitekeen zahartzaroan, garai bateko merezimenduei begira bizi orde- z, Jainkoaren graziari begira bizitzen jakitea; izan ere, hau dio Jainkoak: «Zuen zahartzarora arte hemen nauzue Ni, eta zuei ilea zuritu arte Nik eutsiko dizuet. Nik egin dut hori lehen, eta gero ere Nik eramango zaituztet; Nik eutsiko dizuet, eta Nik zaituztet askatuko» (Is 46,4).

- ***Zahartzen jakin***

57. Zahartzaroak ere baditu bere aterabideak, mingostasunean eta etsipenean erori gabe, gogatsu eta zuhurtziaz bizitzen jakinez gero. Egoki esan izan denez, garrantzitsuena ez da gure bizitzari urteak eranstea, urteei bizia ematea baizik.

Astiroago bizitzen ikasteko denbora izan daiteke zahartzaroa, geure burua aurkituz eta barneko bakea berreskuratuz; esperientzia bakoitza, pertsona bakoitza, elkarrikuste bakoitza, lasaiago gozatzeko denbora; bizitza bere une ezti eta mingotsekin hausnartzeko eta bizia eman digun Jainkoari eskerrak emateko denbora; dena Jainkoaren esku jartzeko denbora, jakinik, Jainko on horrek gure hutsegiteak ulertzen dituela, gure bekaturik ilun eta lotsagarrienak ere barkatzen dizkigula, garen bezalakoak onartzen gaituela.

Zuhurtzia eta egiazaletasuna berreskuratzeko denbora izan daiteke zahartzaroa, bizitzan zehar garrantzi handia eman izan diegun gauzek halako garrantzirik ez zutela, umore pixka batez ikusteko denbora; muina non dagoen gogora-

tzeko, dena errealismo, ulerkortasun eta laztantasun handiagorik ikusteko denbora. Fededunarentzat, astiro, zalapartarik gabe, otoitz egiteko denbora izan daiteke zahartzarora; bakarrik eta isilean eta, beharbada, sufritzen eman ohi diren ordu luzeetan eginiko otoitz xume horrek konfidantzaren heldutasuna ekar dezake, Jainkoaren aurrera joan beharra izango denerako.

Sinesmenaren indar osasungarria

58. Kristau sinesmenak badu indar, gizon-emakumeoi bizitza osasuntsuago eta beteagoa egiten laguntzeko. Horixe oroitarazi nahi dugu, azkenik. Besteak beste, honako hiru eskaintza hauek dira kristau sinesmenak eskura jartzen dizkigunak: izatearen zentzua, pertsonen arteko harreman jatorrak eta osasuntsu hazteko oinarri espirituala.

• Zentzuz bizi

Pertsona asko bizi da zentzurik ezaren hutsak harrapatuz, horrek ondorez handiena eta bizitzaren deusezteak dakarkielako ohartu gabe. Zentzurik ezak, maiz, jokaera kaltegarrietara bultzatu ohi du pertsona: pertsonari ez dagokion sexu-erria berekoira, droga eta alkohol-zalekeriaz ihes egin nahi izatera, barrutik aspertua eta hutsa egotera, bere burua psikikoki nahiz fisikoki galtzera.

Bere bizitza Jesukristorengan agertu den Jainkoaren ikuspegitik eramaten dakien fededunak esan ezin halako indarra aurkitzen du bere sinesmenean, bere ahalegin eta lanei zentzua emateko eta bere izate osoaren azken helburua ikusteko. Sinesmenaren argitan bizi den pertsonak era baikor eta osasungarrian eramaten dezake bere bizitza. Bizitzaren eta heriotzaren misterioari aurre egiteko erarik egokiena Kristoren ikuspegitik begiratzea dela konturatzen dena da, hain zuzen, kristaua.

• Bizitza egia

59. Jainkoarekiko, bere buruarekiko, beste pertsonarekiko nahiz gauzekiko harremanak itxura hutsezkoak, gezurrezkoak, direnean, gizakia ezin da osasuntsu bizi. Bizitza indargabetua eta desegina gertatzen da, pertsona aske egiten duen egiaz gabea. Horrelakoetan, sinesmenak indar bateratzaile berezia du, halako bizitza konpontzen eta egiazko eran bizitzen laguntzeko, Jainkoarekin, bere buruarekin, beste pertsonarekin eta biziarekin adiskidetu bizitzen laguntzeko.

Jokaera nahasia omen da, eta zauri askoren iturria, nor bere burua errudun ikustea, eta horri garrantzi handia eman ohi zaio gaur egun. Teknika eta ahalbide psikologiko ugari erabili ohi da, norberaren erantzukizuna txikiago egiteko, ahaztu erazteko eta bere burua estimatzen laguntzeko. Baina bide horiek ekar ote diezaiokete pertsonari Jainkoaren egiazko barkamenak fededunarengan sortzen dituen bezalako barneko bakea, ziurtasuna eta poza? Izan ere, Jainkoaren barkamena erabatekoa eta bete-betea da, dena berriro hasteko aukera ematen duena, norberaren erantzukizuna berpizten duen grazia.

- ***Maitasunez onartutako bizitza***

60. Maitasun ezagatik dago gaixorik pertsona asko. Besteek onartzen, maitatzen eta ulertzen ez dutela iruditzen zaiona erraz jartzen da kolokan, erraz sumintzen da, bere burua gutxiesten du eta nekez hazten da. Osasuntsu bizitzeko eta bizitza maitatzeko, besteek onartzen eta maitatzen dutela sumatu beharra du pertsonak; eta bera denagatik maite dutela, ez lortu duen arrakasta edota egin dituen merezimenduengatik.

Baldintzarik jarri gabe eta ordainik eskatu gabe maite gaituen Jainkoarengan sinesteak esperientzia bizkorgarria eskaintzen dio fededunari; batez ere, pertsonak bere inguruan maitasunik aurkitzen ez duenean eta norbait aurka duenean. Horrela, pertsonak bere burua aintzat har dezake, bere baitan ikus ditzakeen «hutsuneak» onartu eta bere bidean sendo jarraitu.

V.- BIZITZAREN ZERBITZURA

61. Giza bizitza aurrera ateratze lanean denok dugu zereginik. Hona hemen zenbait argibide, erantzukizun handiagoz eta argiago jokatzeko.

Bizitzeko arreta

Gizon-emakume orok izan behar duen lehenbiziko arreta bizitzea da. Bizia maitatu, zaindu, bere ahalbide guztietan garatu eta betetasunerantz zuzentzea.

- ***Biziagatik eskerrak eman***

Arrenkura eta keixu ugari izan ohi dugu, eguneroko bizi-beharrak dakartzkigun arazo, lan eta nekeengatik; baina ahaztu egiten zaigu bizia erregalia dugula, Jainkoak denoi egin digun erregali handia. Jaio izan ez bagina ere, ez zatekeen inor ohartuko; gauza guztiek aurrera egingo zuketena, eta gu ezerezean ahaztuak geldituko ginatkeen betiko.

Baina bizi gara, ordea. Nire bizia bakarra eta errepika-ezina da; ez da inor ere nire aurretik nire berdina izan, ezta izango ere. Inork ere ez du nire begiz ikusiko mundua, ez nire eskuz laztanduko, ez nire ezpainez Jainkoari otoitz egingo, ezta nire bihotzez maitatuko ere. Nire bizia ordeztetzina da; nik behar dut aurrera eramanez, nik behar dut bizi. Hori neuk egiten ez badut, egiteko geldituko da. Inork bete ezin izango duen hutsunea geldituko da munduan eta izandian.

Horregatik, izatearen poza gozatu behar dugu lehenbizi. Atsekabeak atsekabe, ezbeharrak ezbehar, nekeak neke, Jainkoa goretsiz eta Berari eskerrak emanez bizi behar dugun dohaina da bizia. Gauzak oker ikuste izango litzateke, Jainkoaren grazia geure barruan bakarrik, eguneroko gure bizitzarekin ia zerikusirik gabe, arimaren baitako isilean eta gorderik, hartzen dugula uste izatea.

Eguneroko gure bizitzaren iturria den, eta era askotara agertzera ematen zaigun, Jainko Egile honek gertakarietan, pertsonetikiko harremanetan eta bizitzako esperientzietan ematen digu bere grazia. Horregatik, etengabe eskerrak ematea izan behar du beti sinestedunaren bizitzak: «Zaudete beti pozik. Egin otoitz aspertu gabe; eman eskerrak beti; hau da zuentzako Jaungoikoaren nahia Kristo Jesusengan» (1 Ts 5,16-18).

- ***Gizakiari dagokion eran bizi***

Bizia onartu eta bizitzeko ez da aski gorputza bere alderdi fisikoan ongi ibil dadin, edota norberaren psikismoa egokia izan dadin, saiatzea; beharrezkoa da pertsonari dagokion eran bizitzen saiatzea, gizakiaren ahalbide guztiak garatzen eta zabaltzen ahaleginduz.

Batzuek era osasuntsuago eta neurritsuagoan bizi beharko dute, lana eta atsedena egokiago neurtuz, jate-edateak zainduduz, soin-ariketak eginez.

Beste batzuek, sumindura utzi eta maitatzen jakiteko, bakardadea utzi eta besteak adiskidetzat onartzen jakiteko, zalantzak utzi eta konfidantza izateko, nork bere burua zapuztea utzi eta neurri egokian estimatzen jakiteko, egoki izan dezakete beren gogoko langintzaren bat hartzea.

Beste batzuek, berriz, beren espiritu-bizitza zaindu beharko dute; Jainkoarekin adiskidetu beharko dute, Berarekiko harremanak osasungarria berreskuratzeke, lehendik beren baitan murriztuak eta itoak dituztelako; iraganean izandako zauri eta erruak uxatu beharko dituzte; bizitzari beste zentzu bizigarriagoa eman beharko diote. Bihotz-berritzea, nolarebait, beti da osasungarri pertsonarentzat.

Bizitzeko hezi

62. Biziaren balioa ikustera eta bizia babestera eragingo duen heziketa ematea da egin beharreko beste lana, zentzu etikoa irakatsiko duen heziketa, osasunari buruzko ikuspegi bete eta zabala emango duen heziketa.

• ***Bizitzen irakatsi***

«Bizitzen irakatsiko dieten maisuak» aurkitu behar dituzte beren guraso eta hezitzaileengan, ondoren datozen belaunaldiek. Zientzia, informazioa eta ideologiaz gainera, bizibide egokia eta norabide zuzena erakutsiko dien norbait ere behar dute ondorengo belaunaldi horiek.

Baina, zenbait helburu politiko lortzeko pertsonak hiltzea beharrezkoa dela esaten bazaie, eta abortu terapeutikoa edota, gurasoek nahiezta sortu dutelako, traba egiten duen haurra galtzeko eragina ere, «aurrerapena» dela adierazten bazaie, nola ikasiko dute bizia balio nagusitzat babesten?

Gure gogorkeria, haserrealdiak eta era guztietako erasoak jasaten ari baldin badira, nola ikasiko dute elkarrekin bakean bizitzen? Guri geure diru eta kontu korrontearen arreta besterik ikusten ez badigute, nola kutsatuko diegu bizitzearen egiazko poza? Bizirik gaudela nabaritzeko era guztietako ihesbide eta drogak behar ditugula ikusiz, nola jakingo dute zer den osasuntsu eta duintasunez bizitzea?

Bestalde, norgehiagokarako, arrakasta nahiz nagusitasuna lortzeko baizik prestatzen ez baditugu, ez da erraz osasuntsu hazi daitezen. Datoak, zifrak eta kodeak eman bai, baina gure irakaskintzak pertsonaren galdera nagusientzako erantzunik –bizitzearen zentzu, itxaropen eta balore nagusientzako erantzunik– eskaintzen ez badie, ezin izango dute bizitzearen helburu nagusia aurkitu. Espiritu kritikoa landu bai, baina pertsona askatzen duen barne egia aurkitzera bultzatzen ez baditugu, ez diegu askatasunean hazten lagunduko. Besterik gabe, informazio biologiko hutsa emanez, ez dute ikasiko sexualitatea pertsonari dagokion eran bizitzen.

• ***Kristau elkartean***

63. Gaurko gizon-emakume askok ahalegin handiak egin ohi ditu bere gorputza eta egoera psikologikoa zaintzeko. Pertsonari dagokion edukia eman behar

die kristau elkarteak ahalegin horiei, bizitza osasuntsurako heziketa eskaini nahi badu. Gure kristau elkarten eginkizuna da, bizia Jainkoaren dohaina dela gogoraraztea, eta bizi hori gizakiak onartu, gozatu eta, senideen zerbitzurako eta Kreatzailearen aintzarako izan dadin, ahalbide guztietan erantzukizunez garatu egin behar duela ere gogoraraztea.

Kristau elkarteak baditu osasuntsu eta duintasunez bizitzen ikasteko gu-
neak: adibidez, haurren katekesia, Astialdiko ekintzak, gazteen fede-heziketa,
ezkonaurreko pastoraltza, kristau gogoetarako taldeak, Hirugarren Adineko
pastoraltza, Ebanjelioa entzutea, salbamena ospatzeko liturgikizunak.

Kristau elkarteak, gaur egun, egin dezakeen lanik osasuntsu eta ebanjeliza-
tzaileenetako bat berri on hau bere bizikeraz aditzera ematea da: Kristori jarrai-
tzeak eta Ebanjelioaren espirituz bizitzeak jartzen gaituela biderik egokienean
egiazko pertsona izatera heltzeko.

Bizitza osasuntsuago bizitzeko konpromezua

64. Bizitza osasuntsua arretaz bizitzea eta denentzat hori lortzen saiatzea da gizartearen egiteko bidea.

- ***Gizartearen ahalegina***

Poz ematen digu ikusteak, gero eta arreta handiagoa jartzen duela gizarteak osasuna zaintzeaz, bai ez gaixotzeko, bai gaixotasunak sendatzeko. Bultzatu egin nahi ditugu, bizitza osasuntsuago egiteko agintarien aldetik, eta talde pribatuen aldetik ere, egiten diren ahaleginak: alkohol eta tabakozalekeriaren aurkako ekitaldiak, drogazalekeria baztertzeko eta drogazaleak birgaitzeko ahaleginak, bakardadearen eta komunikaziorik ezaren aurkakoak, zahartzaroa osasuntsuago egitekoak, odola nahiz organoak ematearen aldeko ekitaldiak, HIES edo SIDAr buruzko kontzientzia hartzeko eta eritasun hori dutenen ihardunbide egokia bultzatzeko ahaleginak, edota errepideetan istripua dutenei laguntzeko ekitaldiak.

Gure artean ekologiari buruz egiazko kontzientzia ere bultzatu beharra dagoela iruditzen zaigu, ekologikoak ez diren beste era bateko interesen zerbitzurako erabiltzen dutenen esku utzi gabe.

- ***Kristau elkarteak, osasun iturri***

65. Komunikaziorik eza, anonimatua eta gogorkeria gero eta handiagoak diren gizarte honetan, galdurik ikusten du gizon-emakume askok bere burua. Sinestudunak era bihozkorrean onartuko lituzkeen elkarte bizkorra, gizon-emakume horien osasunerako laguntza handikoa izango litzateke.

Elkartean senide-harremanak izatea, salbamena giro alaian ospatzea, liturgi urtean zehar igandea kristauki bizitzea, elkarrekin otoitz egitea, Jainkoaren Hitza entzutea eta horrelako esperientziak osasungarri dira, eta hori ikusten, balioztatzen eta indartzen saiatu behar dugu. Duten garrantziagatik, Eukaristiaren ospakuntza aipatu nahi dugu, alde batetik, bizitza espiritualaren indar-

garri delako eta, bestetik, Adiskidetzearen sakramentua, Jainkoak barkatu eta sendatu egiten dituelako sakramentu honetan, pertsona etsirik eta apaldua uzten duten zauri, oroitzapen garratz eta errudun sentimenduak.

Kristau elkarteak, ordea, ezin du osasuna zabaldu, bere elkarte barruan bizikera osasuntsua ez badu. Horregatik, osasuntsuago egin behar ditugu geure elkarteak, urduritasuna, neurosia eta gaixotasuna sor ditzaketen jokabide desgoki guztiak baztertuz: sasi-erlijiozaletasuna, itxurakeriazko kultua, moralkeria zitara, harreman mingotsak. Gure elkarteek xaloagoak eta alaiagoak izan behar dute, bihozkorragoak eta harrera hobekoak.

Bestalde, pastoral lana egiteko era osasuntsu eta osasungarriagoa suspertu behar dugu, gehiegizko ekintza-zalekeria zalapartatsua baztertuz, geure iharduna otoitz baketsuaz janaritzuz, pastoral maitasunaren eraginez ekintzak bateratuz, geure muga eta ezinak diren bezalakoak onartuz, elkartasuna indartuz, Jainko Aitarengan usteon izanez.

Gaixo dagoenaz arreta izan

66. «Osasuntsuena eta osasuntsuentzat den gizartea» ez da gizakioia. Gaixoak, ezinduak, ahulak arreta berezia aurkitu behar luke pertsonaren ardura duen kristau elkartean.

• *Sendakuntza alorreko profesionalak*

Poz ematen du ikusteak, nola aurreratu diren medikuntza, ospitaletako laguntza, kirurgia eta botika eskaintza, bai gaixotasuna menperatzeko bai minak arintzeko. Azken urte hauetan ugalduta egin dira gure artean ospitaleak, ambulategiak, osasun etxeak, ezinduentzako laguntza etxeak, birgaitzeko tokiak, lantegi babestuak... eta beste hainbat erakunde, gaixorik nahiz zauriturik daudenentzat. Gaur egungo garapenaren seinalerik baikorrenetakoa da hori, zalantzarik gabe.

Sendakuntza alorreko profesional direnen lan bikaina ere goraiatu nahi dugu. Hainbat aldiz, erraza ez den egoeran ere, hain bihotz-zabal eta arretatsu saiatzen diren gizon-emakumeak dira: medikuak, erizainak, laguntzaileak, fisioterapeutak, psikiatrak, psikologoak, zaharren eta ezinduen zaintzaileak... Zuek gaixorik eta minez dagoenaren ondoan egiten duzuen lana ederren eta bikainenetakoa da. Aita Santuaren hitzez oroitarazi nahi dizuegu «bere sufrimendu eta itxaropenak dituen pertsonaren bizia da esku artean darabilzuen errealitate handi eta misteriotsu hori»⁸.

Baina ospitale egitura, zerbitzu teknikoa eta ihardun profesionala gaixorik dagoen pertsonaren zerbitzura daudela ahazten denean, eginkizun handi horrek galdu egiten du bere giza alderdia. Baita gaixorik daudenen eta ezinduen ona kontutan ez duten beste interes batzuk –aberastu nahia, ideologia, ospe profesionala edota lan eskabideak– tartean sartzen direnean ere.

⁸ Kirurgiari buruzko Batzarreko kideei, 1987, otsailak 19.

Hala ere, zuek, sendakuntza alorreko profesional zaretenok, inor baino hobeki saia zaitezke sendakuntza zerbitzua gero eta gizakoiagoa izan dadin: osasun politika desegokiak eta gehiegikeria jakin batzuk salatuz, legeak aipatzen dituen etika zaintzeko batzordeak eratuz, gaixoari pertsonari dagokion atentzioa eskainiz, edota erlijiozko laguntza egokiak erraztuz.

- ***Gaixoa kristau elkartean***

67. Jesusenak bezalako harrera eta arreta aurkitu behar lituzke gaixoak kristau elkartean. Osasun pastoraltza ongi antolatu beharra dago, beraz, eta pastoraltza horretan diharduen kristau taldeari arduraz lagundu beharra.

Gaixo nortzuk dauden jakin eta beraiengana hurbildu behar du, beste ezer baino lehen, kristau elkarteak. Ikus dezala gaixoak bere kristau senideek ez dutela ahaztu, gogoan dutela baizik, eta maite dutela. Gaixoak dituen beharrak era askotakoak izan daitezke. Batzuek animua eta kemena behar dute, lur joak eta etsirik daudelako; beste batzuek orientabideak eta aholkuak behar dituzte; beste batzuek, berriz, lagun bat behar dute, bakardadean daudelako, edota laguntza ekonomikoa. Kristau elkarteak, osasun pastoraltzaren bitartez batikbat, dohai-nezko zerbitzu osoa eskaini behar dio gaixoari.

Gaixoengana hurbiltzean, sinestedun eta elizkoi den gaixoari kristau elkar-tearen bizitza eraman dakioke. Gauza asko egin daiteke horretarako. Egun berezietan (Pazko, Pentekoste, Gaixoaren Egun, Parrokiaren Egun eta horrelakoe-tan) gaixoa Eukaristi ospakuntzara eraman dezakegu; igandetan Jauna eraman eta egun horretan entzun den Jainkoaren Hitza adieraz diezaikegu; Gaixoen Oliadura elkartean ospa dezakegu. Eragozpen arkitektonikoak leuntzen saia gai-tezke, ezinduek sakramentuetan parte har dezaten arduratu, zaharrak eta gai-xoak iganderoko Eukaristiara eraman, Gaixoaren Eguna arretaz prestatu, bere etxean une egokian bisita dezakegu. Elkarteak beste era bateko aurpegia izango luke horrela.

Era berezian aipatu nahi ditugu hemen, behartsuenenganako eta ezindu-enganako maitasunez, gaixo fisiko nahiz psikikoen zerbitzura arretatsu bizi di-ren erlijioso nahiz erlijiosa elkarteak. Kristau elkar-teentzat testigantza eta era-gingarri ezin hobea dira horiek.

- ***Iharduera ebanjelizatzailea ospitalean***

68. Gaur egungo zerbitzu teknikoak gaixoa ospitalera eramatea eskatzen due-nez, horrek urrutiratu egin ohi du gaixo hori, bai bere etxetik bai bere kristau elkartetik. Horregatik, beharrezkoa da ospitale bakoitzean talde ebanjelizatzai-leren bat izatea, gaixoa ospitalean den bitartean beronen arreta izan dezan; talde horrek gaixoaren kristau elkar-tearen ardura luzatuko luke, gaixoa bere elkar-tera itzuli arte.

Kapilauak, profesional sekularrek eta erlijioso-erlijiosoek egiten duten talde hori, eta berauen egitekoa, zabala da: gaixoarekiko arreta gero eta giza-koiagoa izan dadin ahalegindu; bakarrik, baliabiderik gabe edota beharrean dauden gaixoengana hurbildu; profesional kristauei beren bokazio profesionala,

fededun izanik, gero eta hobeto bete dezaten lagundu; etika zaintzeko batzor-deak sor daitezen lan egin; gaixoei erlijiozko laguntzak eskaini.

Era berean, oroitarazi nahi dugu, oso garrantzitsua dela ahalik eta harreman estuenak izatea, ospitaletako kapilau nahiz erlijiozko laguntzen arduradunen eta parrokien artean, eta lanean elkarturik aritzea. Gaixoaldia nahiz heriotzaren hurbiltasuna duintasunez bizitzeko behar duen giza eta kristau ingurua gaixoari eskaintzea da elkarlan horren helburua, sendakuntzak dituen egituretan ez bait du beti aurkitzen ingurugiro hori.

• *Gaixoen sakramentuak*

69. Kristoren luzapen eta gizon-emakumeentzat «salbamenaren Sakramentu» den Elizak sakramentuetan eta sakramentuen bidez eskaintzen du, era berezian, bere Jaunaren grazia salbatzaile eta sendatzailea. Beharrezkoa da, beraz, gaixoen sakramentuak arreta gehiagoz zaindu eta hobeki ospatzea.

Gaixoaren inguruko kristau elkarteak, Eukaristia ospatuz eta gaixoari gure Jauna –Elizakoak esaten diegun eran– bideko janari eramanez, erarik argienean agertzen du, elkarteak eskain dezakeela grazia salbatzailea, sendatzeko kemena, eta sufrimendua kristauki eramateko laguntza.

Adiskidetze sakramentuaren indar salbatzaile eta sendatzailea ere berreskuratu beharra dugu. Sakramentu hau ospatzean, gogoan izan behar du apaizak, Jesusen izenean ari dela, eta Jesus epaile bezala ez, baizik eta sendatzaile bezala hurbiltzen zela gaixoengana, Jainkoarekin adiskidetzen zituela eta bizi, barkamen, bake eta osasunez betetzen zituela. Gaixoei ezezik, kristau batek baino gehiagok aurkituko luke sakramentu honetan barne-osasunerako iturria, Jainkoarekin, bere buruarekin eta besteekin adiskidetzeko egokiera.

Gaixoen Oliadura, elkartean edota taldean ospatzen denean bereziki, elkarteak bere gaixoei duen iharduera sendatzailea burutzen duen sakramentua da. Sakramentu honetan Elizak, ahul dela aitortuz, baina, aldi berean, bere sinesmenaren sendotasunean oinarriturik, osasun betea eskatzen du gaixoarentzat.

Hondatua eta etsia dagoenari lagun egin

70. Bizitza hondatua dutenei lagun egiten edota itxaropenik gabe etsirik daudenen ondoan zaudeten guztioi –fededun izan nahiz ez izan– zuzendu nahi dizkizuegu azken hitzok. Zahartzeak baldartu dituen gurasoak etxean pazientziaz eta maitasunez zaintzen dituzuenok zaituztegu gogoan; seme nahiz alaba elbarria duzuen gurasoak; senda-ezinen nahigabea arintzen edota hiltzorian daudenei azken ordura arte lagun egiten saiatzen zaretenok; erabat ezinduen edota gauza guztietarako zainketa berezia behar dutenen ardura duzuenok; eskale eta landerregana, alkohol-zalekeriak eta bizitza arloteak hondatu dituenengana, hurbiltzen zaretenok; Gizakia Helburu eta era horretako zerbitzuen bidez, drogazaleei bizitzeko kemena ematen diezuenok; HIES edo SIDA duten gaixoei zaintzen eta bakardadetik nahiz baztertuak izatetik edota beren burua desegitetik babesten dituzuenok; bakardadeagatik, ezinagatik edota etsipenagatik beren

bizia hondatzeko zorian daudenei, Itxaropen Deiak edo «*Teléfono de la Esperanza*» eta horrelako beste zenbait zerbitzuren bidez, entzuten eta adore ematen diezuenok.

Itxuraz baliorik gabeko pertsona horiek zainduz, gizakiari zor zaion maitasun eta begirunearen testigurik gardenenak, argienak, zarete. Halako lan eta ahaleginak egitean, ezina eta porrota nabarituko dituzue eta, beharbada, zaintzen dituzuen beroriek eraso eta zapuztu egingo zaituzte. Hala ere, jakizue, pertsona horiei ziurtasunik ezean, utzikieran eta etsipenean zeharo ez erortzeko laguntasuna ematen ari zatzaizkietela. Beraien bizitzak leial zainduz, hondamendi eta heriotzatik babesten dituen maitasuna, berotasuna, eskaintzen bait diezue. Horietako askok zuengan aurkitu ohi du heriotzaraino «bizitzen laguntzen dion adiskidea». Zuen baitan eta zuen bidez, Jainkoak berak laguntzen die isilik, eta hondatuko ez den bizi betera zuzentzen ditu. Zuetako batzuei zail egingo zaie, beharbada, Jainkoarengan sinestea; baina Jainko horrexengan izan ezik, ez du itxaropenik aurkituko inolako itxaropenik gabe dagoenak.

71. Sufrimenduari iheska eta osasunaren bila, bizitzak dituen porroten artean eta bizitzeko irrikaz dabilen gizarte honetan, Kristo gaur ere «bidea, egia eta bizia» (Jn 14,6) dela sinesten dugu. Berak, gurutzean hilez, «hil egin du herioa». Eta piztuz, betiko biziaren iturria eta itxaropena eman dizkigu.

Gaingan ditugun Pazko-Jaietan, Jesukristoren Heriotza eta Piztueraren misterioa, giza izatea desegiten duen bekatuarentzat hilez eta bizi berri osasuntsuagora piztuz ospa dezazuen dei egiten dizuegu fededunoi. Gizonak gurutziltzatu, baina Jainkoak piztu zuen Harengan, egunero sufrimenduari, gaixotasunari eta ezbeharrari aurre egiteko indarra eta itxaropena aurkitzera adoretu nahi zaituztegu. Kristau herriak «gaixoen osasuna» eta «nahigabetuen poza» deitzen duen Maria duzue bidelagun.

Egunen batean «begietako malkoak txukatuko dizkien» Harengan dute gizon-emakumeek itxaropen nagusia. Orduan, «ez da izango gehiago, ez heriotzarik, ez negarrik, ez garrasirik, ez atsekaberik. Lehengo mundua joana izango bait da» (Apk 21,4). Gure fede bera ez duzenoi ere kristau itxaropena eskaini nahi genizueke; bizitzak berekin dituen kontraesan mingarriak eta beti gizon-emakumeon zelatan dagoen ilunbe kezkarria kontutan izanik ere, bai bait dakigu «egarri denari hutsean emango diola Jainkoak ura, biziaren iturritik» (Apk 21,6).

Iruñea eta Tuteran, Bilbo, Donostia eta Gasteiz
1992, martxoak 4
Hausterre eguna

- ✘ **Jose Maria**, Iruñeko Gotzainburua eta Tuterako Gotzaina
- ✘ **Koldobika M.**, Bilboko Gotzaina
- ✘ **Jose Maria**, Donostiako Gotzaina
- ✘ **Jose Maria**, Gasteizko Gotzaina